

ARANTZAZU'KO
AMA BIRJIÑAREN
KONDAIRA
TA BEDERATZIURENA

PEDRO LUIS ZALOÑA
FRANZISKOTAR AITA FRAILEAK EGIÑA

* * *

IRUGAREN ARGITALDIA

* * *



«ARANZAZU» Aldizkariaren Irarkolan

1931

M. 20494
R. 11321

A.T.V
9.040



KONDAIRA TA BEDERATZIUÉNA

ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑAREN

KONDAIRA TA BEDERATZIURENA

PEDRO LUIS ZALOÑA
FRANZISKOTAR AITA FRAILEAK EGIÑA



IRUGAREN ARGITALDIA



«ARANTZAZU» Aldizkariaren Irarkolan
1931

Nihil obstat.

Fr. Bonav. Mendataurigoitia
Censor.

Imprimi potest

Aránzazu, die 2 Februarii 1931


Fr. Antonius Recondo
M. P.

Nihil osbtat et

Imprimi potest.

Vitoriaë 1 Aprilis 1931

† *Matthæus Episcopus Victoriensis*



Arantzazu ta bere inguruetak 1880' garen urtean

ITZAUŔEA

Begira emen, euskaldun maitea, irugaŕen aldiz argitaratzen dan liburu txiki onetan bildurik, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Kondaira ta Bederatziur̄ena.

Kondaira ez da luze-luzea; baña zuri, Arantzazu'ko gertaera miragaŕien zer bait beŕi emateko naikoa bai, liburutxo au lodiegi aterako zitzadan bildur̄ak gauz asko ixil-erazo badizkit ere.—Bederatziur̄ena, beŕiz, lendik gauz askotan geitu ta beŕituta, ateratzen da, elizkizun ori obeto ta jayera geyagoz egiteko.

Ezer ez dutela balio esango dezu, eta bidez noski; baña, barkatu, eŕurik geyena nere ezdata: goiko aginduak artaratu ezpanindu, nik ez nuala iñoiz nere idazkortz baldaŕa paperean ezariko, ondo daki Jaungoikoak. Gañera, jakizu, liburutxo au idazti-batzaldietan saria irabazteko egiña ez dala, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren jayera Euskaleŕian geitu ta zabaltzeko baizik; eta zure biotzean Ama maitagaŕi onenganako debozioa piska bat geyago sutu ta irazekitzen badu, euskal-tzale ergel guzien esamesak ardura gabe naukate.

Baña ofegatik, Kondairari dagokionez, neronek asmatutako gauzen batzuek emen arkituko dituzunik, ez uste izan. Ez; idatziko dedan guzia, Arantzazu'ko kondaira ta idazti zar eta befietatik, astiro ta arduraz, aterea izango da; eta orañagoko gertaerai dagokienez befiz, neronek ikusi dedana edo galdetuta idoro ta agertu dedana, bakarik, aitatuko det. Beragatikan, gezufik edo ipui konturik emen jariko dedan bildurik gabe, bazauteke.

Nola-nai ta dana dala; liburutxo au, bai Kondaira ta bai Bederatziurfena, guzi-guzia, Arantzazu'ko Ama Birjiñari berari eskeñita gelditzen da.

¡O Ama on-maitagarial, ainbeste tokitan aldareak loraz apaindurik dauzkatzun zere il eder onetan, ara non datorkizun ni ere nere sortatxoarekin. Beste askorenak bezin bikaña ta usai-gozozkoa ez da, baña nere lorategian bildu al izan dedanik onena, bai.

Ar-zazu, Arantzazu'ko Andre Maria, nire zurekiko zor aundien alde, eta, zure debozioaren landara sendo-indartsuak bota ditzan, bedeinkaturik, Euskalefi guztian zabaldu ezazu.

Ala eskatzen dizu zure azkeneko Aita Kapilau

EGILEAK.

1931'gn. urteko Mayatzean.

ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑAREN

K O N D A I R A

S A R É R A

Amabost-gaíen gizaldia erditik auíera zijoan; eta Euskal-eíria, nora-nai begiratuta, izaerarik negargaíienean arkitzen zan.

Napaíroan, Zugaíamurdi ta inguruetako bazteíetan, Frantzia aldetik etoíitako maisu galgaíiak infernuko siñiste okeíak erein eta zabaltzen asi ziran; eta Bizkaya'n, piska bat lenago Durango'n agertu zan gizon nazkagaíi batek utzitako jaíaitzaíleak eta gero Anboto mendian sortu ziran sorgiñak, eren gezur, deabrukeri, egite ta oitura zikinlotsagabeakin gure fedea, euskaldunak ain zintzo ta sendoki beti gorde izan duten kristau-fede garbia, loitu ta itxusitu nairik zebiltzan.

Bestetik, beíiz, Gipuzkoa, Bizkaya ta Araba, beren arteko ezda-baida goíotogaíiakín, irurak bat egiten zituan elkartasun sendoa ausita, buíukan zebiltzan, batean Oñati'koak eta Leniz'taíak Uíuxola'gaínean, bestean Gabiria ta Ozaeta Bergara'n, uíengoan Gebara ta Mendoza Araba'n, eta onela beste tokirik askotan, batzuek besteen aurka al zuten gaitz guzia egiten. Eta euskaldunak, be-

ren mendietako burnia beziñ zalak eta gogoñak, eta beren basoetako aritzak beziñ sendoak eta iraunkoñak, izanik; eta Euskaleña, iñork egundo uztaña ipiñi ez dion eta menderatu ez duan eña izan añen; orduantxe egon ziran, izate aundi ta almentsu arekin batera, beren buruak ere ondatzeko zorian; bada, Jesukristo gure Jaun jakituri betikoa danak esan zuan bezela, bere artean banaturik dabilen eña, galdua da. ¡Zenbat onelako, aritzak baño sendoagoak, burniak baño zalagoak, eta bizirik luze-iraunkoñena zeukatela ziruditenak, erbesteko etsai guziai atzera eragin, eta guziak garaituta gero, eren bañengo gudakin, anai-arteko etsaitasun eta goñotoakin bakañik, ikusi ezdira galduta!

Onetan, etoñi zan, San Bizente Feñer'ek auñez esanik zeukan bezela, bazter guziak agortu ta ondatu zituan, legorte izugañi bat. Jaungoikoak keñu edo kastigu onekin, gaizki zebiltzala ta okeñeko bidetik zijoazela aditzera eman nai zien noski euskaldunai. Baña euskaldunak etzioten aintzakotzat artu: len bezelaxe edo are okeñago zirauten beren goñotozko zitalkeri ta bidegabekerietan, amoñatu batzuen antzera, elkar txikitu eta zatitzen.

Alako itxutasun eta eskergabekeri beltz eta doñoñaren auñean, Jaungoikoak, biziro aseñeturik, zigoñada latz-gogoñen bat bialduko ziola eñi ari, edo utziko ziola bere eskutik, ondamendi betean erori zediñ, ¿nork usteko etzuan? Bada, ez; gaiztakeria auñerago joan zanean eta barkazioa iristea

gutxien merezi zuanean, orduantxe, jende aren onbeñaz urikaldurik, barkatu zion bere Euskaleñi maiteari ta egin zituan berarekin pakeak, ipintzen zuala Bitarteko... ¿baña nor? Zeru-luñen Eñegiñ altsua bera, bere ta gure Ama txit laztan-maita-ñaia, au da, Arantzazu'ko Andre Maria.

I

¡Ama Birjiña Arantza-gañean!

Jesukristo gure Jauna jayo zanetik 1469-gaŕen urteko larunbat aŕatsalde batean, eguzkia bere azkeneko eŕaŕnu gozoakin saŕera-aldeko leyotik lufari agurka zegoan orduan, Rodrigo Batzategi zerritzan amazazpi urteko artzaitxo bat, Oñati'ko Uribaŕi-auzoko semea, Aloña-mendiaren malkaŕetan zebilen, ardiak etxeratu edo txabolaratzen; eta oŕa nun, an bee-aldean, uruti samartxo, somatzen duan arantza baten gañean giz-antzeko zerbait. —¿Zer ote da?—dio bere artean, eta zuzentzen ditu bereala alde artara bere pausoak. Baña ¿nola eldu araño, arkaitz sastraka sasi-leku latza, tarte ura guzia bazan, eta epai-zulo ikaragaŕiak albo batetik eta bestetik ikusten baziran? Ala ta ere, Rodrigo baŕengo biotz-jokada batek bultzatzen zuan, eta beste Moises batek, sua zeriola eŕetzen etzan sasia ikustean bezela, dio: «Joango naiz ta ikuskai mirarizko ori zer dan ikusiko det». Badijoa, bada, eltzen da bertara ta arkitzen du... ¡o mirari aŕigaŕia! Ama Birjiñaren irudi eder bat eloŕi-arantza baten gañean, Jesus Aurtxoa besoetan eta arantzaren adar batetik ezkiŕa txiki edo kanpantxo bat zinzilik zeukana. Artzaitxo zorionekoŕa, aŕiturik eta bereganik kanpora bezela aiñ ustekabeko

arkitze arekin, belaunikatu luñean ta asi omen zitzayon Irudiari galdetzen: «Zu, eñu gabeko Birjiña garbi-zoragañizko ori arantzan? *Arantzan-zu?*...

Eta etziola ezer erantzuten ikustean, *Agur Maria, graziaz betea...* esan da, agur-egiñaz, joan zan bizkor eta ariñeketan etxera, eta gero bigaramonean Oñati'ko eñia, beñi on eta albiste pozgarí au ematera. Oñati'añak, Rodrigo eldu zanean, euri-eske, eliz otoitzak egiten ziarduten.

Alper-apeñik zabilzate,—deadar egin zien, urutitik ikusi orduko;—*Gezaltza baño aruntzago dago Ama Birjiñatxo bat, arantza baten gañean estalperikan gabe: bertara joan, bere auñean eñegutu ta estalpea egiten ez diozuten artean, ez uste izan euririk iritxiko dezutenik.*

Eta bere esanai jaramonik egin gabe, auñera zijoazela ikustean, sendotu zituan bere deadañak eta ojuak, esanaz:

Antxe dagoala...: ta diodana egia ezpada,...
bota nazakezute arkaitzetik bera ere.

Ainbeste leyatzen zanean artzaia, zerbait izango zala ta, erabaki zuten urango goizean mendira igotzea. Esan ta egin. Jaon ziran, Rodrigo auñetik zutela; eta inorañokoak etziran izango beren añitasun eta sorgoña, arantza zorionekora elduta, añigañizko mirari ura, beren begiz, egiaz ta benetan ikusi zutenean! Umilki belaunikaturik, egin zituzten, an bertan, euri-eskeko otoitzak, agertu ziozkaten beren atsekabe ta beañak, eta zuaitz-adar, zotal eta olez nola-bait eratutako etxetxo baten

estalpean jañi zuten Irudi zerutaña. Egiteko santu au bukatzeaz batera, itxas-aldetik jaikitzen dira odei moltso lodi-ilunak; eta kristau zorioneko ayek, ufetarik aberats eta gogokoena bilatu duanaren pozarekin eta euria laister zetoñelakoan, artu zuten etxeko bidea. Ez omen ziran oraindik Oñati'n sartu, euri gozo-mardul batek bustitzen zuan oparo lur egañitua, bere eñai agoñak añas ase ta betetzeraño. Euri ura, Arantzazu'ko Ama Birjiñak euskaldunai egiten zien lendabiziko mesedea zan, eta gero egingo ziezten mesede ta ongien azalkai ta ezagungañia.

Ozta zabaldu ta jakin ziran gauza oyek beste eñietan, *zeruko deia da au* esan zuten guziak, mirari ayen ezkutuko adimena bañuntatuaz. ¡Ama Birjiña arantza-gañean!... Arantza ura Euskaleñia zan: arantzaren punta zoñotzak, beñiz, euskaldunen arteko goñoto, ikusi-eziñ ta etsaitasun amoñatuak. Eta Ama Birjiña arantzaren gañean, Euskaleñiaren erdian, lirio txuri-edefña sasi artean bezela,

Arantza artean arantza gabe
Arantzan gora jakia;

euskaldunak geyago miñik artu etzezaten, geyago zauritu etzitezten. ¡A! Alako Amaren deya ¿nork ez etzun?...

Bereala, bada, bukatu ziran ordurañoko buñukak: etsairik okeñenetatik asita, Aide-nagusiak eta Jauregi-etxeak auñetik zirala, guziak pakeak egin zituzten; eta ezda-baida ta aseñe galgañiak alde batera utzirik, egiazko anayen elkartasunean

laztandu ta besarkatu ziran, Arantzazu'ko Andre Mariari zor ziotela pakearen miragañizko mesede ura, olerkariarekin atortuaz:

Ortxe ziñan agertu
Mutil artzaiari;
Erukia artuta
Euskal eñiari.

I I

Eliza, Ostatua ta Frailetxea.

Oñati'arak, Ama Birjiñagandik iritxi zuten mesedearen esker onez beterik, eta beraren erukimendu ta maitasun aundiari erantzun nayezen, Irudi agurgarria toki egokiagoan jartzea erabaki zuten. Eta ikusirik, lendabizi arkitutako tokia oso arkaitz arte latza, bildurgarria eta auntzak edo basoko piztiak ezpaziran, iñor arisku agiriarekin baizik ezin ibili zitekeana zala, Oñati'ko parokiara edo beintzat Gezaltza'ra eraman nai izan zuten; baita eraman ere. Baina Ama Birjiñak etzuan egon nai, ez batean ez bestean: urango goizerako, Berari Eliza egiteko bildurik zeuzkaten ari, zur eta beste gayakin, beti lengo tokira biurtzen zan. Azkenean, bada, ezaguturik zeruko borondatea, agerlekuan bertan Ermita txiki bat egin ziyoten.

Zeruko Eregiña, bere aukerako leku onetatik, bereala a si zan esku beteka mesedeak ixuritzen;

eta mirari oyen otsera, baita jende-talde aundiak Arantzazu'ra etortzen ere. Baña, nola oyek neke asko ta ez arisku gitxiago igarotzen zituzten beren eromerian, oregatik, Oñati eta Mondragoe'k, elkar-artu, ta bien artean bilera edo kofradi santu bat egiñik, idiki zuten bidea, aitz bizia ebakiaz, eta jaso zuten Ermitaren ondoan Ostatutxo bat, Añiaran'go Joana andreak bere kontura artu zuana.

Emakume au alargun agurgari bat zan, Jauregi aundiko alaba, bere anditasuna utzita, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren ondora, besterik inor baño lenago aldendu zana, eta, Ama Birjiña zaindu eta eromesai ostatuan kontu artzen, bere egunak igaro ta gero, ementxe, Ama Birjiñaren aurreko-aldean bertan, baita obiratua ere izan zana. ¡Zorioneko andrea! artuko zuan noski zeruan, bere Erégiñ eta Andre Maria'ren eskutik, egite on eta erukitsu ayen ordaña.

Emakume jainkotionen ondasunakin, eromesen limosnakin eta kofradikoen laguntzarekin altxatu zan zerbait geroago bakartegi edo frailetxe txiki bat; eta Joana andreak Merzed'eko Ordenan seme bat fraile zeukalako, oregatik, noski, Arantzazu'ra lendabizi etori ziran Fraileak, Merzed'eko oyek, eta eren artean Frai Pedro zeritzan, Joana andre bera- ren semea, izan ziran. Baña Fraile oyek, laister emendik irten bearian arkitu ziran, toki au ain latz eta gogoña zala, ta alako eromes batzaldiak eren biziera bakarzalearentzat eragozgarri zirala noski ikusita. Frai Pedrok ordea etzien jaraitu nai izan: amaren antzera, bera ere, zeruko Erégiñaren on-

doan gelditu zan, eta *Afiarango* bere izengaña *Arantzazu'ko* biurtuta, bertan beti bizitu zan, andik aúera *Arantzazu'ko* Frai Pedro deitzen zala. Arantzazu'ko Ama Birjiñaren lenengo debotorik zintzo ta beroenak, bada, ama-seme oyek izan ziran.

Fraile oyeñ uéngo, Aita San Frantzisko'ren Irugaíen Ordenakoak etoíri ziran, baña oyek ere lengoen antzera aldegin zuten; eta baita irugaíen lekuan etoíri ziran Aita Santo Domingo'renak ere. Azkenik, beste guziak aldegin da gero, 1514'ko Joíailaren 22'an sartu ziran Aita San Frantzisko'ren Lenengo Ordenako Fraileak, eta aírezkero dirautenak erak dira: Arantzazu'ko Ama Birjiñaren zaintzale izateko Jaungoikoak auturik zeuzkanak oyetxek ziran noski.—Orain, ordutik ona Frantzisko Serafindaíaren seme argi oyek, Ama Birjiñaren debotoen laguntzarekin, egin dutena, ¿nork zenbatetu ta adierazi?

I I I

Eliza ta Frailetxe beñiak.—Lenengo éreketak eta ondorengo lanak.—Andre Maria'ganako debozioren auferapenak.

San Frantzisko'ren semeak Ama Birjiñaren zain jaíi orduko, urte gutxiren epe, besterik zan Arantzazu. Ermitatxoa, Eliza txukun biurtzen da: barkartegi txikia, 80 fraile bizitzeko lain naiko zan Konbentu nasai-galanta. Azkenik, Irudi agurgaña


eliza beñiko aldare nagusira aldatu nai izan zuten; baita aldatu ere. Baña, ¿zer gertatu zan? Maria'ren omenez abesten asi ziran Fraileak mututurik geratu ziran, arik eta Irudia lengo lekuan ipiñi zuten arteraño. Orduan aldatzerik etzuan nai, noski, Andre Maria'k, geroago aldakuntza au ezeren eragozpenik gabe egin bazan ere.

Onela, bada, Frantziskotañak, ozta jañi ziran Arantzazu'n, lan asko ta andiak egin zituzten. ¿Nork daki ordea zenbat ezbear eta neke ikusi bear izan zituzten onetarako?

Oyen artean, suak egin zituan ondamenak ez txikienak.

Mila bosteun-da beñogeita amaika(1551)'gañen urteko Abenduaren 26'an gertatu zan lenengo eñeketa; berezko edo ustegabekoa. Antxe jai! auts biurtu zan frailetxe egin beñia, eliza, Jaungoikoa'ri eskeñak, osorik█ gelditzen zala.

Eñealdi oni dagokionez, Abenduaren 26'an, larunbatean, Done Esteban egunean, 1552'gn. urtearen *asieran*, izandu zala, diote Garibay jaunak ta berari dañaikioten beste edeslari edo kondairegiñeak. Baña, orien eta gure arteko banaitasuna idurizkoa baizik ez da: kondairagile batzuen eraz, urteari, Eguañi egunez, eta beste batzuen eraz, egun batzuek atzerago, au da, Urtebeñi egunez, asiera ematen zitzayola oartzen bagera, ayek 1552'gn. urtearen asieran gertatu zala, diotena, guretzat 1551 gañenaren azkenean gertatu zala argi ikusiko degu. Gañera, gure 1551'ko urte onen alde, beste



Arantzazu 1910'gären urtean

argibide bat ere badegu. Kondairegile guziak diote eferetze ori *larunbatean* gertatu zala; eta, izan ere, gure Pinaga'tar Epifanio Aitak azaldu duanez (1), 1551'ko Abenduaren 26'a *larunbatean* erori zan, 1552 garonean beriz, bisiestua izan zalako, astelenean.

Dana dala, Ama Birjiñaren agerpen eta ondorengo gertaldietzazko agiri ta argibideak eferaldi oretan, batez ere, galdu ziran, onela Arantzazu'ko kondairaren auren-aldeko zatia laño artean betiko gelditzen zala.

Baña, Ama Birjiñaren seme zintzo ayek etziran ezertan ikaratu: bereala asi ziran frailetxe efea befiro jasotzen. Onetarako zer egin? Limosnak biltzeko bide on bat izango zala-ta, Barkamen aundi bat Aita Santuagandik iritxi nai izan zuten; eta ala, garai artan Layola'tar Ignazio santua Eroma'n bizi zala ta berak Aita Santuarekin eskualdi andia zeukala jakiñik, 1554'an Aita agurgarí euskaldun oni zuzendu zitzaizkan, eskutitzez, bai Franzisko de Castillo, Franziskotar gure Bañuti ontako Aita Nagusia, bai Oñati'ko eña, ta bai beste zenbait.

Alde onetatik ordea, dirudienez, etzan ezer iritxi: Aita San Ignazio'k, Borja'ko Franzisko santuari egin zion eskutitz batean, guziai erantzun ziyen, bere gogorik onena agertuaz, baña, era berean, Barkamen oriek irixtea oso gaitz zala, esanaz.

(1) Ikusi bedi 1918'gn. urtean Bilbo'n argitaldu zan *Arantzazu* idaztiaren 50'gn. ofialdeko 7'gn. oaña.

Etzan ofegatik etxea egin gabe geratu; len bezin edefa edo are ohea jaso zan.

Ez ori bakañik. Lengo Eliza, emengo eromesbatzaldietarako, txiki samaña zala ikusirik, 1600'gn. urtean asitzen dira beste nasai ta andiago bat egiten; eta, esan ta egin, beraren orma edo paretak, iya goratxo jasota, biritan lurjo ahen, ofezaz alerik bildurtzeke, 18 urte bañu, amaitzen dute guzia.

Azkenik, Irudi agurgaria aldare berira aldatu bear zan; eta gertakizun oroikañi au egokiro jaieztu ta ospatzeko, dakarde Erroma'tik Barkamen oso-oso bat, eta onela, VII'gn. atzalburuan, 1'go. zenbakian, astiroago diogun eran, zortzi eguneko elizkizun eta jaialdi alai-pozgarien bidez, jartzen dute azkenik Andre Maria aldare berian: 1621'gn. urteko Agoña zan.

Pozaldi onek ordea etziyen luzaro iraun. Gertakizun atsegingari onetatik urte osoa oraindik igaroa etzala, au da, 1622'gn. uztailaren 14'an, Aita San Buenaventura egunean, bigaren aldiz sua Arantzazu'n (berezko edo ustegabekoa, orain ere); bigaren erealdi onetan, ez bakañik frailetxea, baita Irudi agurgaria zegoan kapila nagusia ez, gañerako eliza guzia ere, eretzen zirala. ¡Au atsekabearen samiña, ainbeste lan eginda gero!

Baña, Andre Maria'ren seme zintzo ayek, alaz guztiaz ere, etziran ezertan etsi; ezbear oyekin beren debozioa geyago piztu izan balitz bezela, lengo Eliza ta Frailetxea, geroago ta obeak, beriro

jasotzen dituzte. Aritzeko dira orduan egin ziran lanak. Ogei uzta-idi gitxienez bear zituzten zur-abeak, batzuek ogeitemezortzi oñ luzekoak, Oñati'tik ekañi ziran; baita etxegintzarako beste gai asko urutietatik zuzendu ere; eta au guzia nolabaiteko gurdibide trakets eta aldapazko batzuetatik. Sinist-ezgaría litzake, eragozpen eta laztasun oyek eñaztu eta lautzea, Ama Birjiñak bere kontura zeukala, ezpageneki.

Egiaz; Arantzazu'ko Andre Mariak bere mesede ugarien aoz otsegin zion Euskaleñiari, eta Eusleñiak erantzun zion gogotik bere Amaren deiari. Eñi osoak, mendiak aldatzen dituan fede sendo arekin, etoñi ziran auzo lanean Arantzazu'ra, al zuanak al zuana egitera, egunetan irureun gizon ta beñeun uztañidi biltzen ziralá. Bertara etoñi ezin ziranak beñiz, beste nolabait bialtzen zuten beren laguntza, nork bere mañari zegokion eran.

Onela egin ziran emengo lanak. Bigañen eta irugañen aldiz jaso ziran frailetxe ta eliza, zati andi batean, beintzat, emen gertuan etzegoan areañiz egiñak; Gregorio Hernandez antzezkigile ospetsuaren eñetabloak, eta itzegin biar zutela ziruditen santu-irudiak (1); eliza edertu ta apaintzen

(1) Oyen artean bat San Antonio zan, eta gai oyetan guziz trebe ta jakituna zan batek esan zuan beragatik, *astun zan ainbat uré balio zuala* (ta sei afoaba astun, gutxienez, bazan). Irudi eder onen burua azkenengo eñealditik osorik atera zan, eta gaur, zorionez, beñiro elizan dakusgu.

zuten margoirudi, ontzi ta jantziak, eta Frai Juan Bautista Teleria, bertako organogile azkañak egingako, bi bolikidi (tekladu)'ko organoa; itz batean: ondogabeko leize ta epai-zulo ikaragañien gañean zinzilik dagoala dirudian etxe añañi au, Ill'gn. Felipe, España'ko eñegea bera ere, biziro añañurik utzi zuan, *Arantzazu'ko mirari au...*: bai, au guzia onela egin zan.

Eta ez uste izan Ama Birjiñaren jayera au Arantzazu'n bakañik agertzen zala: laister zabaldu zan alde guzietara, bere seme debotoen lanez, Franziskotañak beti añañetik zirala.

Oyek, Franziskotañak, izan dira Ama maite onen semerik zintzoenak, eta Beraganako debozioa alde guzietara zabaldu izan dutenak; eta, azkenik, beren jayera au egitez agertu nairik, 1731'ko Uztalañaren 13'an, autu zuten Arantzazu'ko Andre Maria *Kantauria*-bañutiko beren Frailetxe guzien *Ama Zaindaritzat*: ordutik datorkigu guri, aldeñi onetan bizi geran Franziskotañoi, Zaindaritza gozo au. Eta onela, Franziskotañak añañetik zirala, Maria'renganako debozio au laister zabaldu zan Euskalañi guztira, ta España'ko beste zenbait tokitara, baita Amerik'etaraño ere; euskeldunak erbestera ta itxasotikan arunzko aldeñietara zijoazenian, aldean bait-zeramaten, ondo biotzian sarturik, Ama onenganako jayera biguña.

Ala dakuskigu: irudiak Madrid'en (San Ignazio ta San Paskual'go Mojen elizetan), Arantzazu'ko Amari Bederatziuñen osoa ere, eguneroko meza-

nagusi ta sermoi ta guzti, utero egiten zayola; al-
darea Guadix'ko eliz katedralian eta kapila edo
elizatxoak Habana'n, Mejiko'n Zakatekas'en, Poto-
si'n, Lima'n eta Amerik'etako beste tokirik asko-
tan, guziak Arantzazu'ko Birjiñaren izenekoak eta
Berari eskeinduak.—Ez ori baka'rik: 1612'gn. ur-
tean ja'ri zan Lima'n, ango euskaldunen artean,
baita Arantzazu'ko Birjiñaren Kofradi santu bat
ere; eta beste ainbeste egin zuten Filipinas-ugar-
teetakoak Manila'n, 1772'ga'enean. Azkeneko ko-
fradi au, nola ta zergatik ez dakigula, iragoko gi-
zaldiaren asieraruntz galdu zan; Lima'koak ordea,
gaurko egunean ere, oraindik, badirau, ain bizi
sendoa eman bait-zioten euskaldun zintzo ayek.

Baña, Arantzazu'ko Andre Maria'ren debozio
au eskaldunak alde guztietara zabaldu bazuten,
iñun baño aundi, bizi ta zakonago, Euskale'rian
bertan agertzen da... Emen, Arantzazu'ko kondai-
ra za'ak digutenez, ozta arkitzen zan Ama mirari-
tsu onen irudiren bat etzeukan etxerik, ezta Ama
beraren eskapulario bedeinkatua, kutun maitaga'ri
bat bezela, lepotik zinzilika etzeraman lagunik ere.

Jayera au agiriko elizkizunen bidez erakusten
zuten tokiak ere etziran gitxi; eta Alegria e'rian,
beintzat, Ama Birjiña onen izeneko aldare osoa
ere, bazan. Eta, izan ere, Maria'k berak esku be-
teka bere mesedeak nun-nai ixurtzen bazituan,
Ama onenganako debozioa e'rietan ¿nola geitu ta
zabalduko etzan?

Bai, noski; eta laguntzale e'rukitsu oni, bere

eskuetatik artutako mesede aundien ezagueran, alde guzietan egiten zitzayozkan esker onezko emaitz edo limosnak, egi oñen agerkairik edeñenak dira. Emaitz oyetatik bat edo beste, ona emen: Napañoa ta Frantzia'ko eñomesak argizaya zekarkioten; beste batzuek euna, eliz-jantzi ta ontziak; emakumeak, beñiz, beren auñak jayotzen ziraneko, oyen pisuko garia emateko eskeintza egin oi zuten; azkenborondate edo testamentuetan ere izango zan aginduren bat, *Benedicta* deritzayon Arantzazu'ko Kantu bereziya, batez ere, obeto edo andikiroago abestu zediñ; eta fraileai, limosna eske ateratzen ziranean, ez bakarik aterik-ate laguntzen ziyen, ta au guziak goralgari ta aintzakotzat zeukatela, ezpada ozta geldituko zan iñor zerbait eman gabe, askotan beretzat biar zuanetik izango bazan ere. ¿Zer agiri edeñagorik oriek baño, Arantzazu'ko Andre Maria'ganako jayeraren sendotasun eta zabalera agertzeko?

Baña, Arantzazu'ko deboto oyek, beren Ama ongilearen izenean, egin zuten anaidi edo kofradiaz ere zerbait esan dezagun.

I V

Kofradia.

Lima'n eta Manila'n bizi ziran euskaldunak, urutiko aldeñi ayetan, Ama Birjiñaren izeneko anaidi edo kofradi santuak nola egin zituzten, esanda utzi degu goyan.

Baita emen, Euskalerian bertan, Ama Birjiñaren aldameneko eñiak, Agerpen miragariko egun-egunetatik egin zutena ere, aitaturik gelditu da. Eta onezaz orain itz egin nai degu.

Asieran anaidi au, Oñati eta Mondragoe, bi eñiyen artean, egin zuten; baña bereala, alkarren arteko ezdabaiden batzuen apukoz, Mondragoe'k aldeginda, Oñati bakarik gelditu zan, andik aurrera oñatiañak bakarik jañaitzen zutela. Asko alegindu ta sayatu ziran kofradi-lagunak Arantzazu'ren alde, eta, dirudienez, barkamen eta mesede aundiak ere iritxi zituzten Aita Santuagandik Arantzazu'ra zetoztenentzat (1).

Abuztuko Andre Maria'ren ondorengo igandean, au da, San Joakin egunean, urtero egiten zuan kofradiak bere elizkizuna Arantzazu'n bertan. Eta onela jañaitu zuten kristau zintzo ayek, Maria'ri beren biotzeko jayera biguna erakusten eta Arantzazu'ren alde beren alegiñak egiten.

Baña, joan dan gizaldiaren asieraronz, euskaldunen biotzeko gar bigun, maitale au, guda denborako goraberakin epeldu ta oztutzen asi zan; Oñati'añak arteraño aiñ sendo eutsi zioten kofradiya ere piskaka-piskaka galdu zan, Arantzazu'ko

(1) Barkamen eta mesede oyen Buldarik ezin arkitu izan zala Arantzazu'n eta bearbada lenengo eñealdiren batian galdua izango zala, diote kondaira zañak: oñegatik, mesede oyek zenbat eta nolakoak ziranik ere, eztakigu.

azken efealdiarekin bat (1834'an) noski, edo andik bereala beintzat, gizaldi oñen erdi-aldean aren aztañenik ezta arkitzen da; eta oraindik Arantzazu bera ta bere oroipen guziya ere ziero galduko ote ziran, bildur izan zitekean.

Guda ostean ordea, pakea egin bezin laister, gauzak, Jaungoikoa'ri eskeñak, arpegi ohea artu zuten eta lengo oiñ da izanera biurtu ziran. Añezkero Arantzazu'n egin diran lanak, ikusi gabe, ezin sinistu litezke. Ama Birjiñaren debozioak egunetik egunera auñerapen beñiak egiten ditu: eta anziñako kofradia bera ere, Jaungoikoa'ri eskeñak, gaur beñitua dakusgu. Oñetarako bear ziran pausoak emanda gero, 1917'ko Abuztuaren 14'an lenengo aldiz, eta 1920'ko Azaroaren 26'an bigañenez, baimendu zuan Gazteiz (Vitoria)'ko Obispo Jaunak Anaidi edo kofradiaren araudea. ¿Zertarako da Anaidi ori? Bere araudeak erantzungo digu. Begira emen araude oñek zer dion:

«*Anaidia zertarako dan.*—Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Anaidia jafi da:

1'go. Ama Birjiñaren birtuteak jafaituaz Anaikideak ontzeko, ta Anaidi oñek dauzkan anima-ondasun ugariak irabazteko.

2'gn. Arantzazu'ko Ama Birjiñaren zaletasun eta jayera zabaltzeko, kristauak Ama maite ori gero ta geyago ezagutu dezaten eta beren estuasunetan argana zuzendu ditezen.

3'gn. Eñietako beartasunen eran, Anaidi'ko Biñera Zuzendariak erabakitzen dituzten irakasmen da eñuki-egintzak antolatzeke.

Anaidian sartzeko zer izakera bear diran.—Anaidian sartzeko beafak dira :

1'go. Jaunartze txikia egiña izatea.

2'gn. Bizikera ona eramatea.

Anaikideen eginbearak.—1'go. Anaidian sartzen diranean ematen zaizten Agiri ta domiñaren balioa ordaintzea.

2'gn. Arantzazu'ko Ama Birjiñaren domiña beti aldian, eta Anaidiko elizkizunetan kibista zuri batekin agirian, eramatea.

3'gn. Iru *Agur Maria*, otoitz labur onekin «Arantzazu'ko Ama Birjiña, Efégu zazu gure alde», egunero érezatzea.

4'gn. Ilean bein, gutxienez eta orobat Ama Birjiñaren jaiegunik aundienetan eta Bilerakoai deizkioten beste egunetan, aitortu ta jaunartzera alegindutzea.

5'gn. Anaidiaren elizkizun eta asmoetarako, bakoitzak dezakean neufian, urtero zerbait ematea.

6'gn. Urtero, al izanik, Arantzazu'ko Ama Birjiñari ikustaldi bat egin, eta bertan aitortu ta jaunartzea.

Barkamen da Gainsariak.—Efoma'ko Aita Santuaren eta Gazteiz'ko Obispo jaunaren emakidez, anaikideak ondoren aitutzen diran barkamen da gainsariak irabazi ditzakete.

Barkamen osoak (aitortu ta jaunartu ezker):
1'go. Anaidian sartzen diran egunian.

2'gn. Ilean bein, norberak nai duan egunian, Arantzazu'ra Ama Birjiña ikustera, joan da bertan barkamen-otoitzak egin ezker.

3'gn. Ama Birjiñaren Jaiotz-egunian (Agofaren 8'an) edo bere zortziufen baruko igandean, era

berean Arantzazu'ra, Ama Birjiña ikustera joan da bertan barkamen-otoitzak egin ezkeru.

4'gn. Eriotzako orduan, Jesus'en izen txit santua jayeratsu, al dala itzez, eta bestela biotzez, esan ezkeru, eta eriotza pekatuen ordaingaritzat artu ezkeru.

Azkeneko barkamen au izan ezik, besteak berdin irabazi ditezke Purgatorio'ko animen alde.

Barkamen zatikiak: 1'go. Arantzazu'ko Ama Birjiñaren domiña edo irudiren bati jayeraz muñ egin eta *Agur Maria* bat eřezatzen duten bakoitzian, 50 egunekoak.

2'gn. Erderaz edo euskeraz, otoitz au «Arantzazu'ko Ama Birjiña, Eřegu zazu gure alde», esaten duten bakoitzian, 50 egunekoak.

3'gn. Arantzazu'ko Ama Birjiñaren elizkizunetarako, eta bere Eliza ta Etxeari iraurazitzeke, zerbait ematen duten bakoitzian, 50 egunekoak.

Gain sariak.—1'go. Anaikide ziranen alde esaten diran meza guziak, barkamen osodun aldarean esango balira bezela, dirade.

2'gn. Arantzazu'ko elizkizunai dariezen animako ondasunetan eta ango Fraileen egite on guzietan Anaikide guziak artzeko-dun izango dira.

3'gn. Bileraren iritzian, Anaidiari oi-ez bezelako laguntza txit bereziak egin dizten Anaikideai, *Arantzazu'ko Zaldun edo Andere Omengarien* izena eta, apaizak badira, *Kapilau Omengariena*, emango zaie».

Oařa.—Barkamen eta Gainsari oyen agerkayak Arantzazu'ko Eskutunean arkitzen dira.

Ořa Arantzazu'ko Ama Birjiñaren anaidi edo kofradi beřiaren araudea. Beronen arauz anaidia

jañitako tokiak dira: Arantzazu bera, Oñati, Mondragoe, Segura, Zegama, Zerain, Mutiloa, Zarauz Añua, Aretxabaleta, Tolosa ta Donostia; eta toki-rik geyagotan ere noski jañiko da.

Arantzazu'ko konbentu zañ a beriz bere oñean dakusgun bezela, orain berpiztutzen dan anziñako kofradi au ere bere lenagoko bizi sendo-bikañean lenbaitlen ikustea, ¡Jaungoikoa'ri nai dakiola!

V

Arantzazu'ko Ama Birjiña, bere debotoen Laguntzalea.

Arantzazu'ko debotoentzat, beren zoritxar gu-
zien sendagaya Ama laztan onen eskuetan dau-
katela, gauza jakiña da.

Bai: Jacob Patriarka Santuak ametsetan ikusi
zuan luñetik zerurañoko eskalera miragañi ura
bera, dirudi, dakusgula emen; bada bere buru aña
zeruko laño-artean ezkutaturik eta bere oñ sen-
doak luñeko eñaietaraño sarturik dauzkan Aloña-
mendi onetan agertu zitzakun gure Ama; bere al-
men eñukitsua zerutikakoa dala eta noiznai luñera
jetxi ta gizonen eskabide guziak aditzeko ernai
eta gertu dagoala, adierazi nai baligu bezela.

Eta alaxe da, izan ere. Bera da gaiso ta eriyen
sendagilea, atsekabetuen poza, itxasoko olatu go-
goñen eztañitzañetik ainbeste añantzale ta ontzigi-
zon kaya edo portura zuzen daramazkiana, eta

makiña bat negar malko samiñ legortzen dituan zapi biguna. Baña, mesede ta mirari oyetatik askorik kondaira labur onetara ezin ekañi ditezkelako, banakatxo batzuek bakañik aitatuko ditut, Ama erukior onenganako jayera, bere debotoen artean, gero ta geyago esnatu ta piskortu dediñ.

A) — *Agiriko mirariak.*

Arantzazu'ko Ama Birjiñak bere agerpenarekin Euskaleñari ekañi zizkion pakea ta euria, esanik geratu dira. Fedearen alde egin zion mesedea, beñiz, gero esango degun bezela, etzan txikiagoa izan. Orain beste oyek, ona emen.

Amazazpigañen gizaldian Azkoiti'ko neska gazte bat, lau urte mututurik zegoana, Arantzazu'ko Elizan sartu orduko itz egiten asi zan.—Leniz'ko seme Pedro Sardaneta'rekin beste ainbeste geratu zan: Arantzazu'ra joateko agindua bere familiak egin zuan bezin laister, itza etoñi zitzayon; eta gero Ama Birjiñaren mesede aundi au kontatzen bizitu zan beti.—Martin Ortiz eta bere emaztea, Estabilon bizi ziranak, nekerik erukigañienean arkitzen ziran, biak itxuak ziralako. Eskeñi ta agindu zioten Ama Birjiñari Arantzazu'ra etoñi, ta bederatziuñena egitea, eta azkeneko eguna bukatzeaz batera, begietako argia ere iritxi zuten.—Zumañaga'ko emakume bat, makila edo muletakin baizik ezin ibili zan, ain zegoan elbañitua. Ekañi zuten Arantzazu'ra, eta bederatziuñenarekin batera

joan zan bere gaitz guzia ere.—Oraindik geyago aítzekoa da Oñati'ko Jose Azkazubi'ri gertatu zitzayona. Ezertarako gauz ezta, oyan zetzala, baziran sei urte. Ama Birjiñari bederatziurén bat agindu zion; eta egun artan, nekez badere, Arantzazu'raño igo zan. Eskatu zion atezayari oe bat ostatuan, bederatziuréna, atzera ta auéra ibiltzake, bertan igarotzeko; baña atezayari, beste gauzen batzuekin, aztu zitzayon ardura au. Ama Birjiña ordea etzan aztu bere debotoaz: sendatu zuan bat-batean, uréngo egunean, esku-makilak bizkaéan artuta, eskeák ematera etortzeko añan.—Diego Zubia ta Agiére, Araoz'ko apaiz jauna, bein batean Oñati'tik bere etxera zaldi gañean zijoala, San Elias'era irixtean, zalditik erori ta asi zan amilka, aldapa bera, lorogeita amar metro ta geyagoko bidean. Baña deitu zion biotzetik Ama Birjiñari eta bereala bertan gelditu zan, miñik bature artzake: uréngo egunean, eskeák ematera Arantzazu'ra etoí, ta berberak kontatu zuan mirari au.—Beste bein, Oñati'ko mutil bat, Sindika ondoan Konbenturako eguía ebakitzen ari zala, arbola gañetik erorita, joan zan arkaitzaren ertz eta punta zoíotzak or-emen joka, andik irureun metro baño berago dagoan éfeka zuloraño; baña, éreguturik Ama Birjiñari, ez zitzayon ezertxo ere egin. Fraileak joan ziran bere bila, ilik zalakoan, eta arkitu zuten érosario santua érezatzen, Elizara begira.

Ama Birjiña Arantzazu'koaren bitartez itxaso-

ko ańiskuetatik atera diranak, beńiz, kontaezińak dira. Ori gertaera bat edo beste.—Domingo Arambar, Orioko semea izatez, 1604 gańen urtean, Tańagona'ra zijoala, ekaitz edo eguraldi izugańi batek artu zuan bidean: itxasoak iruntsi zituan Domingo'ren lagunak, ontzia ere lańi-lańi ipintzen zuala. Oroitu zan orduan Arantzazu'ko Ama Birjińaz, deitu zion biotzetik eta bertan baretu ta apaldu zan itxasoaren aseńea. Domingo, mesede onen azagueran, apaiz egin zan.—Mińa seireun da bederatzi (1609) gańen urtean biurtzen zan Teńanova'tik Franzisko *de la Ius'ten* ontzi bat, Donosti ta Pasaya'ko emezortzi ańantzalekin. Ekaitz batean lema nagusia galdurik, itotzeko zorian arkitzen ziran, eta guziak uretera salto egitera zijoazen: bańa, Arantzazu'ra joateko eta al zezaketen limosna emateko eskeintza egin zuten orduko, agertu zitzayen Ama Birjińa iru argirekin, eta baretu zan itxasoa.—Beste onelako ańisku batean arkitu zan Motriko'ko Domingo Asterika'ren ontzi bat. Sevilla'tik bere eńira zetońela, artu zuan eguraldi guttiz gogor batek, eta ontzia, printzatu ta idikirik, jańi zan ura sartzen zitzayola; eta, azkenik, itxasgizonak berak uretara salto egin beańian ikusi ziran. Auńetik, ordea, deitu zioten Arantzazu'ko Ama Birjińari, beretatiko bat eńomeriyan bere elizara joateko eskeintza egińaz; eta jgauza ańigańia! itxasgizonak, lau leguako bidean, ura sartu zitzayon ontzi printzatur beren atzetik zeńaikiela, uńeneko kai edo portura igeri iritxi ziran.

Itxasgizonai bezela, begira zeñ laguntza miragaía gudariai ere egin izan diyen Birjiña onek.— Miñ seireun da ogeitamaika(1631)'gn. urtean, España'ko ta Olanda'ko gudontzidiak auez-ae ikusi ziran Fernanbuko'n. España'ko gudontzidi guziaren agintari, Antonio Okendo Gipuzko'ar ilezkoa zan, eta, etsayaren indaak aundiak ziralako, estu ta lañ arkitzen zan; baña, suari ekiterakoan, deitu zion Arantzazu'ko Amari, jayera bizia zion-da, Beragan uste osoa jañirik, eta garaipenik ospetsuena irabazi zuan. Okendo'k bere esker onaren agiritzat, bi bandera bialdu zituan Arantzazu'ra, eta gañera, bere ontzian sartu ziranetako suizkiu-balabat, zilauezko zintaz apaindua eta idazkun luze bat gañean zeukana, Arantzazu'ko Ama Birjiñari *bere Laguntzale bakara* deitzen ziola. Bala au sakristian gordetzen da gaur ere.—Onen antzekoa da 1638'gn. urtean Oñarabia'ko uri ospetsuari francesen aurka iritxi zion garaitza. Diego Butron, bertako Alkate jauna, al bait laisteren etoñi zan Arantzazu'ra, Ama Birjiñari eskeñak ematera, beste zenbait eskuerakutsi edo emaitzen artean, Txina'n egindako kate baliotsu bat ekañiaz.

Beste mirari asko ta asko (ta oyetan ez gitxi piztutako ilenak) alde batera utzirik, gertaldi oyek, bertako Fraileai egin dizten mesedeetatik bat edo beste esanaz, bukatuko ditugu: oyei, bere mirabe autu eta etxeko seme kutunai bezela, berarizko naitasuna diela dirudi.


Miñ bosteun da berogeita bederatzigañengo

neguan, Arantzazu'ko Fraileak, iñora irten eziñik, jateko guziak aituta, ikusi ziran: añ elurte aundia izan omen zan. Baña emen zeukaten beren Janari-zaya. Gabon gaba zan: eta, uste ta itxaropen osoa Ama Birjiñagan jañirik, ozta asi ziran ufengo eguneko otoitz eta kantuak egiten, bereala, artzai gazte ta alai baten idurian, zeruko aingeru eder bat sartu zitzayen koruan, ogi ta bestelako jakiz beterik.—Beste bein, Irudi agurgaria lengo tokitik beste goragoko ta edefago batera aldatu zutelako mututurik geratu ziran Fraileai, atzera lendabiziko lekuan ipiñi zuten unean, mingaña biurtu ziyen.

Baña, osterontzeko mesedeen azgariak eta beste guziak gaintzen dituztenak, Sunbila'ko seme Migel Espilosin, birtute aundiko Fraile legoak, Jaungoikoa'gandik iritxi zituan oyek dira:

1,goa. *Gaitz izuritsurik Arantzazu'n etzala ikusiko.*—Agindu au etxe santu onetan gaurdaño, dirudienez, betea ikusi izandu da.

2'gna. *Arantzazu'n iltzen edo obiratzen zanik etzala inpernura joango.*—Mesede au, Eliza Ama Santaren erakuskizunakin batean aditu bear bada ere, zeñ aundia dan edozeñek dakus. Oregatikan, Jaungoikoa'ren borondatea izan ezkerro, guziok nai genduke Konbentu santu onetan iltzea eta Ama Birijiñaren azpian obiratuak izatea. ¡Emen edo non-nai, gure eriotzaren gozagarria Ama lantan au izan dedila!



Arantzazu 1918' garen urtean

B) — *Isiliko mirariak.*

Aitatu diran mirariak agiriko mirariak dira, gorputzeko osasun eta beartasunai dagozkienak, geyenak beintzat. Baña animai isilian eta ezkutan egin dizten milaka ta milaka mirarien ondoan, ¿oriek zer dira?

Begira zer mesede miragañiya egin zion fede santuan Euskaleñari, bere Zaindari arduratsu onek, amazpigañen gizaldiko lenengo urteetan. Garai artan, Napañoa'n, Frantzia aldeko mendiak sorgiñez bete ta izuñiturik zeuden: biltzen ziran oyek beren *akelañeetan*, eta, deabrua bera maisu zutela, mila ezin esan alako itxusikeri ta gaiztakeri egiten zituzten, kristau siñismenaren eta oitura on-zuzenen kalte aundian. Bada Ama Birjiñak, bai berberak mutil koskor eta neskatxai, aurrean jañita, beren euskerazko izkuntzan ematen zizten ikasbideakin, eta bai bere seme, Arantzazu'ko Fraileak, alde ayetan egin zituzten erakusaldi eta jardunen bidez, sorgiñ eta akelañeak isildu, mututu ta goiberaturik utzi zituan.

Mesede añañari onen ondoan jañi litezke Ama Birjiñaren debotoak beren animako estualdietan iritxi izan dituzten laguntzak; Maria Ana Joanes Berasoeta Azpeiti'ko alabak, 1583 gañen urtean Ama ongile oni deituta bakañik, iritxi zuan bezela, deabruaren erasoaldi lañietatik azke bere burua ikusten zuala. Eta sail berean jañi litezke baita

Arantzazu'ko eromesak beren animen onerako ar-
tu dituzten beste ainbeste ta ainbeste mesede ere.

Urtero Arantzazu'ra datozen eromesak askoak
dira; ta lenago zetozenak ez gutxiago noski: ogei-
tabost milatik ogeitamar milaraño, Etxebarria Aitak
bere Kondairan (1) esaten digunez. Eta eromes
orien artean ¿zenbat konfesio on, zenbat Jaungoi-
koa'ganako biurtze miragarri egin eztira? ¿Zenbat
pekatarik, beren pauso okeak zeruko bide on-zu-
zenera, aldatu ez dituzte? ¿Zenbat anima birtute-
tsuk, beren bizitza ona obetutzeko biar zuten as-
nasa ta indar beroa, iritxi ez dute?

Arantzazu'ko bideak, elizako ormak, eta aitor-
leku edo konfesonarioak itzegiten balekite, ja,
zenbat onelako mirari agertuko lirakean! Bada gu-
ziak Ama Birjiñaren mesedeak dira.

Emen dioguna zerbait aditu edo baruntatzeko,
gero, VI'gn. atzalburuan, eromerietzaz eta erome-
sen jayera ta ildurazko egite santuetzaz esango
deguna, ikusi bedi.

Gure egunetan miraririk ez dala ikusten Aran-
tzazu'n, esango du bearbada norbaitek. Au ez da
egia, Ama Birjiñaren egiazko debotoak ondo da-
kiten bezela. Badira orain ere mirariak, batez ere
isilikoak eta animakoak. Gure egunetan ikusi izan
ditugu guk eromesak, baita emakumeak eta nes-
katx bigun-minberak ere, beren etxeetatik onako

(1) 15 eta 17'gn. oriaideetan.—Idazti au, orain-
dik argitaltzeke, Arantzazu'n arkitzen da.

bidea oñutsik igarota gero, eliz-atetik aldare nagusirañokoa belaun goñitan egiten. Eta beste one-lako egite on, jañagañi asko; eta guziak artutako mesedeen aitormen eta esker onez.

Eta geyago ta sañiyago ikusten ezpadira, eta agiriko mirariak ere Ama Birjiñak lenago beziñ ugari, orain egiten ezpaditu, ¿zergatik da? Gerok, bear bezela, mesederik Berari eskatzen ez-tiogulako; fedea ta itxaropena otzitu ta makaldu zaizkigulako. ¿Nola eskatzen zuten edo zer egiten zuten gure asaba zañak, Ama Birjiñagandik ain-beste mesede iristeko?

Begira zer egin zuan gure Patroi andi S. Ignazio Loyola'tañak, bere Lagundiaren egiteko andiari ekin auñetik. Egin zuana izan zan, Arantzazu'ra joanda, sinismen biziz ta uste sendoz bete-rik, Andre Maria'ri laguntza eskatu. Eta Ama Birjiñaren auñeko egonaldiak on egin ziola, dio berak; bear zituan argitasun eta indañak antxe noski iritxi zitualako.

Bada datozela gaur ere, al duten guztiak, Arantzazu'ra, Ama ta Zaindari eñukitsu onen ondoan beren egonalditxo, egun batekoa edo geyago-koa, al duten bestekoa egitera; au da, datozela Beraren laguntzarekin anima-lan edo eginkizun santuak egitera, eta onela Ama beraren bitartez Jaunagandik mesede ugariak iristeko gertatzera. ¿Zer toki egokiagorik onetarako Arantzazu baño?

Ejertzizioetako Liburuaren Egile santua, Liburu miragañi ura idatzi auñetik, esan degunez, emen-

txe egon zan; Añiaran'go Joana andrea eta bere ondorengo zenbait emakume jainkozale, ementxe ondu ta obetu ziran; Frai Migel Espilosin'ek, gorago aitaturik utzi ditugun mesede añañiak, ementxe iritxi zituan; beste ainbeste ta ainbeste Fraile santuk ere, zeru bidean auferapenik mirañañienak, ementxe egin dituzte; eta toki au, berez ere, añ bakar eta isila izanik, biotza ta gogoa zeruronz altxarazitzen dituan tokiya dala, esan beñañik eztago.

Bestetik beñiz, orain, Ama Birjiñaren kofradi zaña beñitu ezkeru batez ere, ¿zer gauz edeñañago ta bidezkoagorik kofradikoak eta gañañerako debo-toak, batzuek batean eta besteak bestean, beren Ama maite laztanarekin egun batzuetako egonalditxo bat egitea baña, eta bitartean beren animako kontuak Jaunarekin zuzentzea baña? Eta Ama Birjiñaren debozioa geitu ta zabaltzeko, ¿zer bide oberik? Beragandik mesede ugariak iristeko ere ¿zer eragilegorik?

V I

Arantzazu'ko eñomeriyak eta eñomesak.

Asko maite diranak, alkar ikusi gabe, luzaro, ezin egon izaten dira. Batak bestearekin piska batean itz egiteko, beren arteko kontuak aoz-ao esateko, neke aundiak artzen dira, bide luzea igarotzen da; eta gero, an, beren arteko egonaldiak

ematen dien zorientasunaren orde, lanbide oyei guziaz ezer-ez bat irizten zaye.

Oregatik, Arantzazu'ko Ama Birjiñak Gipuzkoa'n, Bizkaya'n, Araba'n, Nafarroa'n, Gaztelania'n, Franzia'n eta beste tokirik askotan ainbeste maitale izanik, seme-alaba ta deboto oyek, Bera ikusi nairik, Arantzazu'ra etofiko dirala, ez dago esan bialik.

Irudi santua agertuta bereala, asi ziran kristauak, batez ere euskaldunak, pilaka mendi miraritsu onetara igotzen, batzuek artutako mesedeak-gatik esker zintzo-biotzekoak ematera, eta guziaz auferako laguntz-eske. Erromes oyek, len aitatu degunez, ogeitabost milatik ogeitamar milaraño bai omen ziran urtean.

Franzesak Burdeos'tikan etofiri oi ziran onera eromeriyan, eta euskal arantzaleak sari egiten zituzten beren etofaldiak, batez ere Teranova'ko bakalau arantzara ateratzen ziranian, Ama Birjiñaren babes eta laguntz-eske, ta gero beriz Ufrian, arantzatik etxeratzen ziranean, eskerak emateko.

Urteroko eromeriya egiten zuten eriyak ere asko ziran, eta gaur ere badira oraindik, Jaungoikoari eskerak, oitura santu berean dirautenak. Gipuzkoa'tik dauzkagu: Oñati bere Araoz da Uribañi auzoakin, Aretxabaleta, Zegama, Segura, Mutiloa ta Zerain. Eta oraño go etortzen asi diranak, oyek ere urterokoak: Mondragoe, Eskoriaza ta Legazpia. Arabatik beriz dira: Luzuriaga, Axpuru,

Narbaja, Añiola, Zurbano, Jungitu, Heredia, Lañea, Gordoia, Ilañaza, Ozaeta, Ulibañi-Añazua, Matauko, Ermua, Elgea, eta Laurea deritzan ibaia.

Oyezaz gañera, sañi ikusten dira Arantzazu'n eñomeriyak, batzuetan jayera utsez, eta beste batzuetan Ama Birjiñaren laguntz-eske, etoñiak. Azken-aldi oyetan etoñi diranik oroikañienak, ona emen:

—1879'an, Eskoñriaza ta beste Leniz'ko eñiak.

—1881'an, Zortzi egun iraun zuan iru euskal-probintzietako eñomeri andiya, Gazteiz eta Iruña'ko obispo jaunak buru ziralak.

—1886'an, Ama Birjiñaren *Koroazioa* zala-ta, era berean zortzi egunekoa, Gazteiz'ko obispo jaunarekin.

—1897'an, Bilbo'tik langiñe katolikoak.

—1898'an, Kuba ta Filipin'etako gudaldietan, gure soldaduen alde laguntz-eske, inguruko eñiak.

—1900'an, Basurto'tik Aita Kaputxino'en Iruña'ko Ordena Agurgañia.

—1904'an, Maria'ren Sortze txit garbiaren ize-nean, Araba ta Gipuzkoa'tik etoñi ziranak, batez ere: apaizgai euskaldunak, Gazteiz'ko beren azitxetik; iru euskal probintzietatik gure Iruña'ko Ordena Agurgañia, zortzi milata geyago anai-añebakin; eta, azkenik, inguru onetako eñi guziak; eta Asteasu ta Bidania ere bai bakoitza bere eñi lagunakin.

—1905'an, Jesus Sakramentatuaren Gurtzale gautañak.

—1906'an, Arantzazu'n ikasle izandako apaiz jaunak.

—1908'an, Asteasu, Zizurkil eta beren e'ri lagunak, eta Mondragoe'tik Jesus Sakramentatuaren Lagun gautar'ak.

—1909'an, Lur Santua ta E'roma ikustatzen izandako e'romesak; ga'ñera Legazpi'ko e'ria eta O'ñati'ko San Luis'en Gazteak.

—1910'an, Legazpi'ko umeak, ta Bergara'ko langi'le katolikoak.

—1911'an' Bergara'ko langi'le katolikoak. Ga'ñera, urte onetan, u'riaren 15'an, Donosti'ko emakume andreak, a'ezkero urtero egiten duten bi-dezkunde ede'ari, asiera ematen diote.

—1912'an, Donosti'ko gizon zaldunak, eta Gazteiz'ko e'romeria.

—1913'an, O'ñati'ko Iruga'en Ordena Agur-ga'ria.

—1914'an, Azkoiti, Zuma'raga, Vila'real eta Legazpi'ko San Luis'en Gazteak.

—1915'an, O'ñati'ko Jesus Sakramentatuaren Lagun gautar'ak.

—1916'an, Araba'ko Antezana'tik bi alditan eto'ri zana, eta Azkoiti'ko Maria'ren Alabak egin zutena.

—1917'an, Zarauz'tik Antonio'tar Gaztedia-rena; eta Bermeo, Mundaka, Gernika, ta onen albo e'rietakoa, bizkaitar'ak a'ezkero urtero egiten dutenari onela asiera emanaz.

—1918'an, Arantzazu'ko Ama Birji'ña Gipuz-

koa'ko *Zaindari'tzat* inzentatua izan zan, eta *Zaindaritza* au ospatzeko, urteroko eñiez gañera, etofi ziran eñomeriyan: iru euskal probintzietako Gurtzale gautafak; Donosti'ko *Centro Catolicoa*; Beasain, Asteasu, Bergara ta Azpeiti, beren eñi lagunakin; baita Tolosa'tik, añezkero urtero datoñen, eñomeriya ere.

—1919'an, Oñati'tik, Maria'ren Alabak.

—1920'an, Zumaya'tik, bat San Luis'en Gazteena, eta beste bat Maria'ren Alabena; Arua'tik, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Anaidia; Eñezil, Andoain da Azpeiti'tik, San Luis'en Gazteak; eta azkenik Orio eña.

—1921'etik 1931'ra, beste askoren artean, Bizkaitik: Abadiano, Barakaldo, Ondañoa, Malabia, Plenzia, San Salvador del Valle, ta Zoño; Gipuzkoa'tik: Aizarna, Alza, Andoain, Ataun, Beizama, Goyaz, Lazkao, Lezo, Nuarbe, Pasajes, Uñestila, ta Usurbil. Gañera, baita emen inguruko Soma-ten-taldea, Katoliko-*Integristen* Lagundia ta eñietako Sekretarioen Bazkuna ere, Arantzazu'ko Andre Maria beren Batzar-Buru ta Zaindaritzat eza-gutuaz.

Beraz, ikusten danez, gaurko eñiak ere beren guraso ta asabai ikasitako bidea ez dute oraindik aztu, eta beren begiak oraindik, ayek bezela, Arantza-gañeko Ama ernai ta arduratsuagana biurtzen dituzte. ¡Añera, eñi maiteak, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren izeneko oitura zar oñetan!

Eñiak bezela, entzuterik aundieneko gizonak

ere ikustatu nai izan dute Birjiña maitagañi au.

Loyola'ko Aita San Ignaziok, 1522'an, Manresa'ra joan da bere Lagundiaren lanketa miragañiari asiera eman aurretik, Arantzazu'ra zuzendu zituan bere pausoak, eta ango elizan, Ama Birjiñari zeruko indaia ta argitasuna eskatzen, gau osoa igaro zuan. Eta Aitaren oñatzak onetan, beste gauzarik askotan bezela, bere seme argi Borja'ko Franzisko santuak ere jañaitu zituala nik uste det; bada Oñati'n Arantzazu ondoan, bizi izanda, ¿nola gelditu zitekean, alako Birjiña miraritsua ikustatu gabe, bere Aita San Ignaziok, Erroma'tik egin dako idazkian, zeñ onura ta irabazpen aundia ekañi zion berari emengo eromeriyak, esan zionean batez ere?

Izen aundiko elizgizon-eromesak izan dira gerroztikan ere Arantzazu'n: Ama Birjiñari eskuera kutsi ta emaitzak egin diozkatzen obispo jaun eta beste elizgizon nagusien izenak, beintzat, or-emen aitatzen ditu Kondairak. Orañago, geron egunetan ikusi ditugunak bakarik izentatuko ditut:

—Fr. Zeferino Gonzalez (1889'an) eta Neto Lisboa'ko Patriarka (1911'an) kardenal jaunak;— Antonio Vico (1910'an eta 1912'an) eta Ragonesi (1916'an), España'n Aita Santuaren Ordeko jaun argi-argiak;—Nozaleda, Saenz de Urturi, Melo, Gandasegi, Lemos, arzobispo jaunak; eta azkenik, Gazteiz'ko ta beste tokirik askotako obispo jaunak.

Baña elizgizonak ezeze, eregeak eta beste

aginte aundiko gizonak ere, oro bat igo dira Arantzazu'ko medira.—Mila seireun da amabost(1515) gaŕen urteko azaroaren 12'an egin zion III'gn. Felipe, España'ko eŕegeak, Ama Birjiñari bere ikustaldia. España ta Franzia'ren arteko ezkontza trukeak eginda gero, Ondaŕabi'tik atzera zetoŕela,—dirausku Isasti kondaragileak, (1)—Oñati'n goizean goiz jaikita, euri jasa aundiakatik ikaratu gabe, igo zan eŕege jayeratia Arantzazu'ra ta Ama Birjiñaren aldarean meza santua etzunda, amaikatarako eŕira beŕiz jetxi zan: onela agertu nai izan zion Maria'ri bere maitetasun bizia. Jaungoikoa'ren edo Ama Birjiñaren izenean, beren animen onerako, neke apur bat igaro nai eztuten gaurko kristau epelentzat, izer lotsabidea! Andik laister arkitu ziran atarian elizarako jantzi eder batzuek, eŕege onak bialduta noski.

Eŕege onen pausoak jaŕaituaz, igo dira bakarleku onetara: 1830'an Franzisko de Paula, VII'gn. Fernando'ren anai j a u n a, bere emaztearekin; 1879'an, Antonio Kanovas jauna, España'ko Gobernuaren buru zala; geroago, gure eŕeñuko arazo ta goraberetan añ zer-ikusi aundia izan duten Pidal, Polavieja, Romanones, Primo de Rivera...; eta Maria Kristina eŕegiña, XII'gn. Alfonso'ren alarguna ere, 1887'ko urtean, Ama Birjiñarentzako jantzi eder batekin, egun batetik bestera Do-

(1) *Compendio historial de Guipúzcoa*, 288'gn. oŕialdean.

nosti'tik etortzeko egon zan; prestakizun guziak eginda gero, ustekabeko eragozpen bat agertu zalako, bere asmoari utzi bazion ere: Ama Birjiñaren jantzia, ordea, bialdu zuan. Azkenik, gizon aundi guziak ez aitatzearen, XIII'gn. Alfonso to Victoria Eugenia, bere emaztea, oraingo e'legeak, 1907'an egon ziran; eta orañago, au da, 1928'an izan dira Juan eta Gonzalo beren semeak ere.

Oyek bezelako jaun eta aundikiak noiznai ikusten ezpadira Arantzazu'n, baña e'omesak bai, eguraldi ona egin ezkerro. Inguru oyetan, bere urteroko ikustalditxoa Arantzazu'ko Amari egin gabe, nekez geldituko da iñor, eta aiton da amonaxoak berak, bearbada, au'etik dirala.

Oyen artean oroika'ria da, batez ere, *Maria xa'fa* zeritzan eta gere egunetan ezagutu degun Getaria'ko emakumetxo bat. Bi auntz zeuzkan berak: eta oyetatik ateratzen zuan diruarekin eta Ama Birjiñaren debotoak ematen ziozkaten limosnakin, iya zartxoa zala ere, urtero eto'fi oi zan Arantzazu'ra; *Benedicta* n a g u s i bat ateratzen zuan, bere elizkizunak egiten zituan, eta onela, Ama Birjiñari bere ikustalditxoa eginda gero, poz eta atsegiñez beterik biurtzen zan atzera bere etxera. Maria'ren debota zintzo au, 1918'gn. urtean, eta berak 94 zeuzkala, i' da.

Arantzazu'n, e'omesen betealdirik aundiena uda azkeneruntz izan oi da. E'omes-taldeak, batez ere gazteak, nola datozen, ikustekoa da orduan: batxuek kotxebidetik, besteak Aloña'ko ma-

galetatik bera, oyek Araba-aldetik eta ayek beriz Aizkofi'ko Gurutze Santura e'omeria eginda, oju ta i'rintzika, mendi batetik bestera saltoka dijoazen eta euskal gaztediaren ezta'i leun-garbiak baka'rik botatzen dakizkian lekaio luze-mee-alaigariak botatzen...

Gazte biotzekoak! itztxo bat zuei. I'rintzi oriek, neuri'rik kampaia izan ezik, ba'engo pake onaren agergariak izan oi dira, ta ez dirudite gaizki; ba'ña, ona emen ikaskizun bat, dagokionarentzako. Gure asaba ta gurasoak, e'omeri oyek egiten zitu'tenean, «guziak zijoazten,—dio Luzuriaga Aitak,—(1) lotsa on da begirune santuz beterik, batzuek o'ñez u'rutietatik, ez gutxi o'ñ-utsik eta zenbait belauniko; asko baita astindu edo zigorkatu ere egiten ziran bidean; eta guziak, eliza begizatzean, belaunikaturik agur egiten zioten Ama Birjiñari, *Agur Maria* esanaz: eta aitortu ta jaunarturik, biurtzen ziran era berean, nor bere etxera, ango ogi-apu'ak ere erlikia batzuek bezela etxe-koai eramanaz».

Begira orain beste gertakizun negargari au.—Napoles-e'reinuan, Ama Birjiñaren izeneko e'omeri-leku ospetsu batean, igarotako gertaldia da. Toki onetara e'omeri aundiak egiten omen ziran; eta 1611'gn. urtean, elizaren aldameneko ostatuan e'omesak, gabeko orduetan, dantzan eta bear ez diran jolas eta lasaikerietan ari zirala, Ama Birji-

(1) *Paraninjo celeste*, etc., Lib. II, 92.

ña, bi argizuzi eskuetan zituala, agertu zitzayen da ostatu guzia ére zuan, mila ta bosteun da geyago lagun bertan ilik gelditzen ziralá (1).

Ispilu oyetan begiratu bear lirake gaurko egunean Arantzazu'ra datozen ez gitxi: toki santu au ez da jostatzeko eta batzañak egiteko, asko buruariñ eta txorok uste duten bezela. Emen iskanbiñla, jolas eta lasaikerietan ibili nai duanak, obe du Arantzazu'ra ez etofi; Ama Birjiñagandik mese-deak iristeko baño Berari aseferazitzeko, obeak dira bide oiek eta. Anziñako éromesen oñatzetatik, betoz éromesak, eta ayei bezela dakarten eskaria, entzungo die Andre Maria'k.

V I I

Arantzazu'ko elizkizunak.—Barkamenak.

Arantzazu'ko eliza bedeinkatua bakañik ez da, enparauko elizarik geyentsuenak bezela, baita gañera donetsi edo *konsagrata* ere; eta gañera, 1921 gañen urtean, Aita Santuak *Basilica Minor* izen eta nausitasunez goraldu duana, Éfoma Urian «Basilica Minor» diranai bidez dagozkiten omen eta eskubide guzti-guztiak beroni ere dagozkiola: jain done ta goralgañia da Arantzazu'ko eliz au! Toki santu onetan egiten diran elizkizun edeñak,

(1) Señeri. *Cristiano instruido*, t. III, Discurso XXII, n. 22.

bada, ta orobat bertan irabazten diran Barkamenak, efomesen Andre Maria'ganako zaletasuna asko geitu ta irazekiko dutela, esan bialrik ez dago. Beraz, elizkizun eta barkamen oriek azaldu ditzagun.

Oretarako, anziñatik, beti egon oi dira bakarleku santu onetan abeslari, soñulari ta organo-jotzalerik bikañen da trebeenetakoak, eta era berean elizontzi ta jantzitan, mota asko ta aberatsetarañokoak, elizkizunak bear bezelako aundikitasun egokiyarekin egin ditezen. Beragatik, ango meza nagusiak, ango bederatziurñenak, eta *Benedicta* deritzayon ango elizkizun bereziya, ilun abarian egiten danian batez ere, zeñ jayerati ta ikusgariak diran, ¿nork adirazi?

Bi estalki ditu Ama Birjiñak: gañekoa lodia, azpikoa mea. Irudia agertzeko, lenengo lodia jasotzen da, gero mea; estalzeko beñiz, lenengo jexten da mea, gero lodia. *Benedicta* kantatzen danian, ordea, estalki biak eztira kentzen bata bestiarene ondorian: bata kentzen danetik bestia kendu orduko, bitarte-une luze samaña igarotzen da. Elizkizunaren asieran, Ama Birjiña ez da agiri. Erdi-alderunz, estalki lodia bakañik jasotzen da: andik laister ateratzen dira elizmutiltxoak, aingeru batzuen antzera, kandela irazekiak eskuetan ditzutela. Bitartian begi guziak, arako Edertasun zoragari ura noiz baño noiz agertuko, begira ta begira daude. Azkenean, azpiko estalki mea ere jatorik, gelditzen da agirian Arantzazu'ko Ama

edera. Orduan biotzian sartzen dan dardara bigu-
ña ta begietatik ixurtzen diran malko gozoak ...ez
dira esateko. Baña, egunoroko edo sañietako eliz-
kizun oyek, añ edera dirala, eñomeri aundi egu-
netan eta beste berarizko garayetan egiten dira-
nakin ez dute zer ikusirik. Oyetatik bat edo beste
aitatu ditzagun.

1.—Mila seireun da ogeitabatgañen (1921) ur-
tean gertatu zan lenengoa.—Ama Birjiñaren len-
biziko Kapilatxoa, geroago Eliz aundi-zabal nola
biurtu zan, esanik gelditu da goyan. Lanak eme-
zortzi urte iraun zuten, mila seireungañenetik eme-
zortziraño; eta bukatu ziranian, Irudi agurgaña
lengo tokitik aldare berira aldatu nai izandu zan.
Bada aldakuntza au bide zala, eta bear bezela egi-
teko, zorzi eguneko elizkizun nagusiak eta jostal-
di aundiak asmatu ziran, eta Aita Santuak Barka-
men oso, ugari, bete-bete bat eman zuan Eliz ura
ikustera zetozenentzat. Mila seireun da ogeitabat-
gañen urtean, Ama Birjiña Agoñeko egunean, asi
biar ziran elizkizunak, zortzi-urñen guzian irau-
teko.

Ozta zabaldu zan berion au, eñiak poztu zi-
ran, eta izentatu zan egunerako, Euskaleñi guzti-
tik eta Gaztelania aldetik ere bai, jendetalde aun-
diak, eta beren artean elizgizon asko, arkitzen zi-
ran Arantzazu'n.

Gazteiz, Bergara, Azpeiti ta Zarauz'tik ekañi-
tako oyal aberatsez, pitxi eder eta añi baliotsuz
jantzi ta apainduriko jargoi ikusgañian ipiñi zan

Ama Birjiña, guziak obeto ikusi zezaten. Egunsentitik eguerdiraño ta geyago meza santuak esaten ziran: gure Jauna gelditu gabe ematen zan: iztun edo sermolaririk onenak, goiz ta afatsalde, egoki predikatzen zuten euskeraz ta erderaz, eta Gazteiz eta Iruñako soñulari ta abeslariak, bertakoakin nasi ederki soñujo ta abestutzen zuten. Erromesak, beriz, egunian baño egunian geyago ziran, eta ango inguruetan, ordu laurdeneko bidean, jendea ta jendea baizik agiri etzan. Oregatik, elizako eta beste bañengo tokietako aitorlekuak jendea kofesatzeko asko etzirala, kanpo agirian ere beste asko jañi biar izan ziran, apaiz jaun eromesak bertako Aita Fraileai eginkizun santu onetan laguntzen ziyetela.

Eta, alde batetik, onelako elizkizun ederak egiten ziran bitartian, bestetik baita su jostalariak eta beste bide oneko jolas eta pozaldi alaigariak ere antolatu ziran, jendea zerbait egurastu ta alaitzeko.

Alaz guziaz ere, egun ayek, Ama Birjiñaren aldakuntzako jai gozo alaiak baño, Aste Santuko egunak geyago ziruditela, diote kondaira zarak: alakoxe odolezko diziplinak eta penitentzi ariariak ikusi omen ziran. ¡Ispilu edera, gure asaba zaren fedea ederki erakusten diguna, eta gure elizkizun eta jayetan beti aurrean euki bear gendukeana!

Azkenik, zeruak berak sariztatu nai izanduzuan kristau on ayen jayera sutsua, zortziuren ar-



Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Aldare Nagusia

tan egiten zuten guzia zeñ gogotsu zitzayon mirari arigari baten bitartez adirazitzen ziela. Egun batean, eliza jendez beterik zegoala, eta guziak Irudi zoragarian beren begiak ezaririk zeuzkatela, oña nun, jargoyaren lau aldeetan, beste ainbeste aingeru, argiak eskuetan dituztela, agertzen diran, eta alde batetik bestera, iru alditaraño, aldatzen diran, Ama Birjiñaren aurretik igaro-aldi bakoi-tzian, belaunikatu ta burumakurtze aundia egiñaz. Mirari arigari au, eliza betean, jende guziaren aurrean, gertatu zan, eta guziak beren begiz ikusten zutela. Beronekin, bada, kristau zorioneko ayen fedea zenbat piztuko zan eta Ama Birjiñaganako beren jayera zenbat geituko zan, esan bearik eztago.

Zortziurñaren azkeneko egunean, eratxi zuten Ama Birjiña bere jargoi ederetik, prozesio nagusiluzean eliza eta klaustroetatik erabili zuten, eta azkenik, eromes guzien gora ta deadar alai-pozgarrien artean, jari zuten aldare berian. Aldare berri au, g a u r k o aldare-nagusiaren toki berean zegoan, eta, Etxebarria Aitak dionez, lengo zaña baño zertxobait sortaldera-xeago arkitzen da.

Ama Birjiñaren izeneko jai aundi-ospetsu ayek, Arantzazu'ko kondairan b e t i aurrenetako lekua eukiko duten egun oroikari ayek, onela bukatu ziran.

2.—Jayaldi oyek ordia eztira bakarak izan Arantzazu'n: 1881'an Erromeri Nagusiko egunetan, egin ziranak ere, orien lagunak izan ziran. Ala egizta-

turik ikusi nai duanak, Cruz Ochoa jaunak idatzi zuan egun ayetzazko *Cronica* edeña irakurtzia dauka: an arkituko du nai duan guzia, ondo baño obeto ta astiroki esana.

3.—Sail berean jañi bear ditugu 1886'gn. urtean, Ama Birjiñaren *Koroazioa* zala-ta, egin ziranak ere. Lenagokoak eta Eñomeri Nagusikoak bezela, Koroazioko oyek ere zortzi egun iraun zuten; eta bai euskerazko ta erderazko itzaldietan, bai abeslari eta soñularietan, eta bai elizkizun eta kampakoko jolas pozgarrien aundikitasunean, ta oro bat beste gauza guzietan, ordukoen antzekoak edo berdiñak, izan zirala, batere bildur gabe dasakegu. Mutil koskoña nitzala, antxe, bertako ikastetxean, arkitzen nitzan neu, eta nere begiz ikusi nualako, diot.

Garilaren 6'an izandu zan Koroazioa. Eginkizun begiramentsu au egokiago egiteko noski Irudi agurgarria aurretik jetxi zan bera, eta Gazteiz'ko Obispo jaunak, Aita Santuaren ordeiz, zeru-luñen Eñegiñ altsuari zilañezko koroa distiatzalea jantzi zion. Zer igaro zan une artan eliza betetzen zuan jende-talde, Maria'ren seme zintzo ayen biotzetan, ezin esan diteke. Beren aspaldiko amesa beterik arkitzen zan: beren Ama Arantzazu'koa koroaturik zekuskiten... ¡Zorioneko unea, ura!

Ama Birjiña bean egon zan bitartean, bera ondo ta astiro ikusi nairik, guziak bere ondoraño uferatu nai ziran; baña au ezin zitekealako, burnizko esiak eragozten zuan-da, an ziran jendearen

estutu beařak, eta nork nori itzulka auřea artu beařak, alkařen leyan eskuak luzatzen zituztela, eskuakin eřozarioak, domiřnak, eskuzapitxoak... Iru-di Santuari ukitzeko. Eta bařen aldetik geundenok, ayek arturik, Ama Birjiřnari ukitzera eramaten ginituan. Beste askorenak bezela, baita nere amatxo laztanarenak ere, eziř esan alako poz aundiz beterik, neronek eraman nituan. Biotzaren ageřalditxo au barkatu bekit.

Ori eliz bařuan gertatzen zana. Eta kanpora irtenda beřiz ęzer ikusten zan? Jendea ta jendea alde guzietan (30.000 ta geyago eřomes bazirala, diote): dendak eta jantegiak or-emen: kanpantore-a ta aldameneko mendi tontorařak bandera alaigariz jantzi ta apaindurik... Benetan ikustekoa zegoan Arantzazu egun oroikaři ayetan.

Bařa, orduko jayak adirazi nai izatia, alpeřik nekatzia da: ař aundi, eder, eziř adirazigarřiak izan ziran.

4.—Orobat, 1918'an, Gipuzkoa'ko *Zaindari'* tzat Ama Birjiřa ezagutu ta ospatzeko egin diranak ere, lengoen mařan bidez jaři ditzakegu; bada Gazteiz, Osma ta Camagüey'ko Obispo jaunak, iru euskal probintzietako Diputadu jaunak eta Gipuzkoa'ko irurogei alkate jaun bertan arkitzen zirala, egundoko ederki ta andikiro, egin dira.

5.—Azkenik, urteroko Bederatziuřena aitatu bear degu emen. Egun ayetako elizkizunak, bai itzaldietan, bai abestietan, eta berdin gařerako gauzetan, edeřen eta bikařenetakoak izaten dira.

Auruko egunetan beste efi batzuek efomerian etofita gero, azkenekoan Oñati'ko efi igotzen da, Obispo jauna ta Diputadu jaunak ere bertan arkitzen dirala. Gure Ama Zaindariaren omenez egiten dan urteroko Bederatziuren au, añ ederki ta andikiro ospatzen da.

Eta, izan ere, Arantzazu'ko Andre Maria'k, zuzentzen zayon biotz-agur au, ¿ez aldauka bidez irabazita? Ama ongile onek, alde guzietan, esku-beteka ixuritzen dituan mesedeak zeñ ugari ta aundiak diran, beraren debotoak dakite, iñork baño obeto. Oregatik, beste toki batean esan degun bezela, alik sañien egiten diozkate beren ikustaldiak, eta añ gogor eta samiñ egiten zaye bere ondotik aldegin beara.

Ala askotan ikusi izan ditugu kristau oriek, batez ere efomeri-aundi egunetan, etxera biurtzeko ordua etofita ere, beren Ama ongileagandik ezin aldegin dutela, eta oraindik kanpoko atetik azkenbegirada samura Berari bialduaz, zotinka ta negarez diotela:

Baña zugandik alde
Biotzak ezin du,
Zuregana dijoa,
Zugan bizi nai du.
Birgiñ paregabea,
Bedeinka nazazu:
¡Agur, Ama nerea!
Agur, agur... agur!

Euskaldunok, bada, Arantzazu'ko Andre Maria añ maite degun ezkerok, eta Beraren guganako ernaitasun ta ardura zolia añ ondo ezaguturik daukagun ezkerok, ¿zer gauz obe ta bidezkoagorik, Bera gure Ama Zaindaritzat artzea baño, ta Bere izenean jaiialdirik eder-ospetsuenak egitia baño?

Dana dala ta egiten dana egiten dala, guzia, Ama Birjiñaganako zaletasunaren gar bizia euskaldunen biotzetan geyago piztu ta irazekitzeko, ta onela Eregiñ altsuari ainbeste mesedegatik zor diogun esker ona erakusteko, izan dedila.

Barkamenak.—Baña Maria'ren debotoak, Arantzazu'n, elizkizun edefak ez eze, barkamen ugarriak ere badauzkate. Kristau guziak, bada, toki bedeinkatu arekin gero ta geyago zaletu ditezen, ango elizan iritxi ditezkean animako ondasun oyek, emen salean jañiko ditugu (1).

Bulda santu-dun efomesak, aitortu, jaunartu ta eliz-otoitzak egin ezkerok, begira emen zenbat barkamen irabazi ditzaketen:

1.º—Urtean bein, norberak nai duan egunian, *barkamen osoa*. (VI'gn. Pio'k 1789'ko abuztuaren 28'an, XIII'gn. Leon'ek 1881'ko abuztuaren 24'an eta XI'gn. Pio'k 1922'ko garagañilaren 20'an.

2.º—Ama Birjiñaren bi jaitan, au da, bere lengusu Isabel santari egin zion Ikustaldi egunean eta bere Jasokunde egunean, *barkamen osoa*; beste

(1) Barkamen oyen egiztapen da argibideak Arantzazu'n bertan gordetzen dira.

bost jaitan, au da, bere Aurkezpen, Sortze, Garbikunde, Iragartze ta Jayotz egunetan *7 urte ta 7 beŕogeikoa*; ta urteko egun guzietan, *200 egunekoa*. (VI'gn. Pio'k 1789'ko abuztuaren 28'an).

3'gn.—Ama Nekatsuaren egunean, *barkamen osoa*; Garizumako beste ostiraletan, *7 urte ta 7 beŕogeikoa* eta ostiral guzietan, *200 egunekoa*. (VI'gn. Pio'k 1789'ko abuztuaren 31'an).

4'gn.—Ama Birjiñaren Jayotz egunean, *barkamen osoa*. XIV'gn. Klemente'k 1769'ko azaroaren 20'an).

5'gn.—Maria'ren Izen Gozoko jayan, au da, agoñaren 12'an, *barkamen osoa*. (VI'gn. Pio'k 1789'ko abuztuaren 31'an).

6'gn.—Animen egun eta bere zortziurñean, eta berdin astelen, asteazken da otiral guzietan, Arantzazu'ko aldare nagusia, an meza ematen duten aita fraile ta apaiz jaunguzientzat, *barkamen osodun aldarea da*. (VI'gn. Pio'k 1789'ko agoñaren 2'an),

7'gn.—Jesusen Jaiotzako Bederatziurñen nagusiaren lenengo ta azkeneko egunean, *barkamen osoa*, ta bederatziurñen beraren gañerako egunetan, *7 urte ta 7 beŕogeikoa*. (VI'gn. Pio'k 1789'ko abuztuaren 31'an).

8'gn.—Gañera Arantzazu'ko eliz onek, Frantziskotaña dalako, gure Ordenako elizai dagozkietan barkamen guziak berekin ditu. Eta ala, gure Aita San Frantzisko'ren Ordenako egutegian izentatzen diran egunetan, irurogei ta amañetik gora,

toki santu onetan *barkamen osoa* irabazi diteke. Ori, eliza berari dagozkion barkamen zatiki askoak emen aitatzan ibili gabe.

9'gn.—Azkenik, Jose Cadena Eleta Gazteiz'ko Obispo jaunak (1909'ko ilbeltzaren 12'an), *50 eguneko barkamena Salvea* edo *Agur Maria* esateagatik, eta Aita Santuaren Ordeko jaunak (1921'ko abenduaren 9'an) *100 eguneko barkamena, Salvea* esateagatik, eman zuten.

V I I I

Arantzazu'ko Frantziskotar argiak.—Emakume jainkozaleak.

Ama Birjiñari dagozkion gauzen ondoan, Bere zaindari izan diran Arantzazu'ko Aita Fraileai eta Ama beraren gañerako deboto bereziai ere, tokitxo bat emango ezpahiñie, Kondaira onek utsune aundi bat izango luke. Oregatik, emen, orien aitamena labur bat bederik egin bear degu. Aita Fraileetatik asi gaitezten.

A) — *Aita Fraileak.*

Gizon orien artean asko arkitzen ditugu, bai santutasunian eta bai jakindurian, benetan ospetsuak diranak, eta aritzeko ezta; bada Kantabria-barutian Franziskotarak izan dituzten gizonik aundienak Ama Birjiñaren ondoan bizi nai izaten zu-

ten, eta, aldietan, eun da geyago lagun bizi izaten ziran alkañekin bakarleku artan. Baña, orientzat guzientzat tokirik ez degulako, ilik diranetatik agirien, ospetsuen eta bikañen batzuek bakañik aitatuko ditugu. Begira emen guziak sañean:

I. *Juan Zumañaga* aita, Mejiko'ko Obispo ta Arzobispoa, Durango'aña, eta Arantzazu'n Aita San Frantzisko'ren jantzia artu zuana, batzuek ezetz badiote ere. Konzepzio'ko probintzian, Guardian, Iritzmañe ta Probintzial izanda gero, Bostgañen Karlos-Enperadorearen eskabidez, Mejiko'tañen lenengo Obispo Aita Santuak egin zuan. Guadalupe'ko Ama Birjiñari jayera bizia izan zion eta Beragandik mesede aundiak artu omen zituan. Eta aldeñi ayetan, Jaungoikoa'ren izenean, neke asko igarota, bide luze-latzak, fraile utsa izan balitz bezela, beti oñez eginda, Mejiko'ko lenengo Arzobispo zala, 1548'gn. urtean, eta berak 80 zituala, santuen usai gozoan il zan.

II. *Franzisko Tolosa* aita, Tuy'ko Obispoa, Tolosa'n jayoa ta jauregietxeko semea. Ordena guziko gorengo Buru izandu zan; Mondragoe'ko frailetxea berak egiña da, eta Tolosa'koari asko lagundu zion. Bere aginpideko urteak beteta gero, Arantzazu'ko bakardadera aldendu zan, arteraño eraman biar izan zituan neke ta ardura kezkañiak utzita, bere buruari bakañik begiratzeko. Baña Jaungoikoak beste aldera zeukan erabakirik. Bigañen Felipe-erege aundiaren eskabidez, Tuy'ko Obispo egin zuan Aita Santuak; eta ango Obispo

zala, 1600'gn. urtean il zan. Bere Arantzazu maiteaz ordea etzan iñoiz aztu, eta bere azken borondatean, bakarleku santu ari, bere liburutegiko liburu eder asko utzi ziozkan.

III. *Franzisko Zerain* aita, Zerain'daía, ta, lengoa bezela, jauregietxeko semea. Arantzazu'n lan asko egin zuan, batez ere Nagusi izandu zan garayan, eta Ordenan aginpide aundiak izan zituan; baña, ala ta guztiz ere, egin zituan bide guziak, —eta asko izan ziran—, beti oñez egin zituan, zaldiz ez ibiltzeko Aita San Franzisko'ren agindua zintzo gordetzea. Abeslari-soñulariak elizkizun-jayeratako, berak jañiak dira Arantzazu'n, Etxebaía aitaren ustez. Al izanik, Arantzazu'n bizi nai izaten zuan beti, eta bertan Ama Birjiñaren ondoan, 1644'gn. urtean il zan.

IV. *Juan Luzuriaga* aita, Ozaeta'n (Araban) jayoa, ta Ordenan aginpide aundiak izan zituana: Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Kondaira berak lenbizi argitaratu zuan, 1686'gn. urtean Mejiko'n arkitzen zala; eta oregatik ipintzen degu emen bere izena, Arantzazu'n bizi izandu zanik ezpadakigu ere. *Paraninfo celeste* deritza liburu ori; eta bi gizaldiren epean, au da, 1880'gn. urtean Pastor jaunak berea argitaratu arteraño, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren debotoak irakuñi al izan duten kondaira bakaía, bera izandu da.

V. *Franzisko Elejondo* aita, Mondragoe'taía, jakituri aundiko gizona. Bi aldiz izandu zan Arantzazu'ko nagusi. Lendabiziko aldi artan (1746-

1749), egin zan eliz-ondoko ostatua, arkuak plazara zituala; baita pelota-lekuko estalpea ere. Bigarren aldiz izandu zanean (1752-1755), Juan Antonio Ubilos aita jakintsua lagun zuala, Filosofia'ko liburu eder bat, *ad mentem Scoti*, argitaratu zuan.

VI. *Franzisko Beldarain* aita, Bergara'ra, Txiki-txikitatik eraman zuten Arantzazu'ra *tiple*-kantari izateko. Txitaundiak nola baitziran bere Jainkozaletasun eta birtuteak, amabost urtean euki zuten Nagusiak Nobizioen maisutzan. Abeslarien maisu ere aldi luzean izandu zan, eta 1770'gn. urtean argitaratu zuan *Ceremonial Romano-Seráfico* deritzan liburu eder bat, Arantzazu'ko Ama Birjiñari opaldua.

VII. *Franzisko Antonio Palazios* aita, Oñatia'ra, misiolari ospetsu-agurgaria. Amasei urterekin, 1743'an, sartu zan fraile Arantzazu'n. Tolosa'ko konbentuan fraile gazteen maisu izanda gero, Zarauz'kora aldatu zan; eta andik auffera bere lanik geyena Misio Santuak izan ziran, erietan frutu aundi ta ugariak ateratzen zituala. Liburu asko idatzi zituan; eta bere zarzaroan, 1804'garren urtean, santuen usai gozoan, Zarauz'en il zan.

VIII. *Manuel Ventura Etxebarria* aita, Mondragoe'tara, txit jakintsua ta idazle trebea. Gaztetxoa zala, sartu zan fraile Arantzazu'n, ta Ordenan irakaskintzan igaro zituan bere egunak. Liburu asko idatzi zituan, eta, oyen artean, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren kondaira ere bai; batek ere etzuan ordea argirik ikusi.

IX. *Manuel Arkaya* aita, Arabako Villafranka'n jayoa, buru azkaŕekoa, ta Arantzazu'ko gauzen beste idazle bat: 1834'ko eŕeketaren ondorengo urteetako gertakizunak, berari eskeŕak batez ere, dakizkigu, eta oŕegatik guk ere, urte orietan, bere idaztien esanari, batez ere *Libro general* etc. idazti-burutzat daraman artan dionari, geyen bat daŕaikiogu: 1850'gn. urtean Ama Birjiñaren Bederatziuŕen bat (1) argitaratu zuan, beste bere idaztiak argitaltzeke gelditzen ziralá: 1856'an Bigaŕen Isabel Eŕegiñak Priego'ko konbentuko Nagusi izentatu zuan, eta, andik Arantzazu'ra beŕiz biurtuta, 1871'gaŕenean, berak 71 zeuzkala, Arantzazu'n bertan il zan.

X. *Elias Aŕegi* aita, Arantzazu'ko Kapilau-nagusia, Mondragoe'taŕa, gizon zuuŕa ta trebetasun aundikoa. Mila zortzireun da beŕogeita seigaŕen (1846) urtean, Ama Birjiña Arantzazu'ra biurtzeko egin ziran lanetan, geyen bat ibili zana, Aita argi au izandu zan; eta Jose Maria Egiluz aita, lenengo Kapilau-nagusiari, andik ilabete gitxi baŕu il zanian, nagusitzan jaŕaitu ziona ere, berau. Nolako estuasun aundiak eta aldi txaŕak izan zituan bere denboran Arantzazu'k ezin esan diteke, guzietatik, bere Kapilau-nagusi oni eskeŕak, ongi atera bazan ere. Ogeitamar urtean etxe santu

(1) Bederatziuŕen au, dirudienez, lenagoko idazleren batena da, Arkaya aitak berau argitaldu baizik egiten etzuala.

artako buru izanda gero, 1877 gañenean, eta berak 60 zeuzkala, il zan.

XI. *Mariano Estarta* aita, Lañabezua'ko semea, misiolari beroa, ta Añegi aitaren ondorian Arantzazu'ko Nagusi izandu zana. Gauzai beren neñiak artzeko esku trebe ta egokia zeukan, eta Bigañen Isabel España'ko eñegiñañekin sañera aundia izan zuan. Baita gure Kantabria-bañuti onen beñitzalìa ere bera izandu zan. Azpeiti'ko Mojen ostatuetxean, 1878'gn. urtean, eta berak 73 zeuzkala, il zan, bere gorputza gero andik irugañen egunian Arantzazu'ra aldatzen zala.

XII. *Juan Jose Salazar* aita, 1807'ko Ilbeltzaren 30'an Zoño'n (Bizkayan) jayoa, misiolari bikaña. Neurtitzat ateratzeko egokitasun txit berezia izan zuan, beste askoren artean *Zaldibar'ko uratsari* asmatu ziozkanak, argiro adirazten digutenez. *Atoz pekataria* ta beste Misio-kantak ere berak egiñak omen dira. Euskaleñi guzian gordezen da oraindik Aita agurgañi onen oroipen txit gozoa. Bere azkeneko urteak Arantzazu'n igarozituan, eta 1882 gañenean, berak 76 zeuzkala, il zan.

XIII. *Jose Domingo Albeniz* aita, Azkoiti'aña, latin-izkuntzako maisu ospetsua. Emezortzi urtekin, 1827'an, sartu zan fraile Arantzazu'n. Beste aita kapilauakin nasi, bere lengo toki maitera, 1846'an, biurtu zanian edo andik laister, Valadolid'ko ikastetxe-buruan artarako baimena artuta gero, asi zan Latin erakusten; eta ogeitamabi ur-

tean erakuskintza onetan jardunda gero, 1885'garnean, eta berak 76 zeuzkala, il zan.

XIV. *Jose Esteban Epelde* aita, Arantzazu'ko Nagusi lenengo, ta gero Probintzi guzikoa izan zan Aita argia. Azkoiti'n, 1843'gn. urtean, jayo zan; Bermeo'n 1860'an, artu zuan fraile-jantzia, eta 1886'garngo azaroaren 31'an Zarauz'en il zan. Asko zor dio Arantzazu'k Aita Elpelde'ri. Berak egin edo eragiñak dira: orain mutil gazteak dauden ikastetxea; Gezaltzatik aufera, arkaitz bizian, idiki biar izan zan kotxe bidea, eta, Zapatati'k Konbentura bitartean, bide ertzean dauden amabost kapilatxoak, eta... beste lan asko. Era berean, 1881'gn. urteko Erromeri Nagusia, ta 1886'garngo Ama Birjiñaren Koroazio oroikaña ere berak asmatu ta antolatuak izan ziran. Bere gorputz ila, Aita beraren eskabidez, Arantzazu'ra, Ama Birjiñaren azpiko obitegira, ekañ zan.

XV. *Jose A. Lerchundi* aita, Mañuekos-baütiko Franziskotar Misioen Buru Nagusia. Orioreñan, 1836'garnean urtean, jayo zan; eta amabost zeuzkala, etofñ zan Arantzazu'ra, elizan organoa joaz batera, latin ikastera. Ogei urterekin artu zuan Priego'n (Kuenka'n) Franziskotañen jantzi santua. Berak zeñ liburu eder, jakituriz beteak, argitaratu zituan; aundiki ta erege arazoetan zeñ bizkoña ta trebetasun aundikoa zan; eta, 1888'an, Sultan aundiaren mandatariak, Aita Santuaren aufera, mundu guzia ariturik gelditzen zala, nola eramán zituan, esan beañik ez dago, gizon au aiñ

argi ta ezagutua izan da-ta. Tanger'en, 1896'garfen urtean, il zan.

XVI. *Juan Luis Arue* aita, Arantzazu'ko Guardian lenengo, ta gero Probintzi guziko Buru izandu zana. Durango'n, 1850'gn. urtean, jayo zan, eta Bermeo'n, 1866'an, artu zuan fraile-jantzia. Lan asko egin zuan Arantzazu'n. Bera Guardian zala, eliz guziari, bañen aldetik, beñitu on bat eman zitzayon, eta orain dauden aldare edeñak ere orduan egiñak dira. Gañera, konbentu zañaren benetako beñitzeari ere, berak Probintziako Nagusi zala, eman zion asiera. Abeslari bikañenetakoa izandu zan, baita misiolari ospetsua ere, bere urte onetan. Bilbo'n, Konzepzioko *Monjen* ostatu-etxean, 1909'gn. urtean, il zan; eta bere gorputza, Aita berak jaso zuan Forua'ko konbentuan, dago obiratua.

XVII. *Elias Martinez* aita, Elgea'ra, auñekoa bezela, Arantzazu'ko Nagusi lenengo, ta gero Probintzi guziko Buru izandu zana. Bere amets guzia, nundik Arantzazu jaso ta goratuko zuan izandu zan. Oraingo añoztetxe beñia berak egiñanda; Ama Birjiñaren Zaindaritzako lenbiziko pausoak, berak eman zituan; eta beste lanik asko, neke ta buruauste galantak igarota gero, egin zuan; eta ala, azken-urte oyetako etxe santu aren auñerapenak, geyen bat beintzat, berari zor zaizkala esatia neuñitik kanpora irtetia izango danik, ez det uste. Oñegatik Aita agurgañi onen oroipe-

na beti gozoki gordeko da Arantzazu'n. Forua'n, 1915'gañen urtean, eta berak 49 zeuzkala, il zan.

B) — *Laneko Fraileak.*

Arantzazu'n bizi izan diran laneko Fraileak santutasun txit berezikoak izan dirala, esaten digu Luzuriaga aita kondairagileak; ta oro bat diogu geuk ere, gere begiz urte luzeetan ikusi izan degunari begiratuta. Migel Espilosin, gorago aitatu degunaz gañera, beste bi edo iruren izenak, adibide ta sinisgaritzat, ona emen.

I. *Zeferino Murga* anaya, Gazteiz'ko semea, birtute aundiko gizona: fraile-jantzia Donostia'n artua zan: 27 urtean berak beti jo izan zuan argikanpaia, ta askotan egun sentia baño bi ta iru ordu lenago izan añen, txit añez arkitzen zan koruan otoitzean. Bera izandu zan Ama Birjiñaren seme leyaletik bat, eta bere azkeneko egunetaraño Irudi argurgañiaren añezan, iya beti belauniko ikusten zan: 1853'gañen urtean, berak 87 zeuzkala il zan.

II. *Dionisio Iituñiaga* anaya, Elgea'ko semea ta fraile-jantzia Bermeo'n artua. Gizon birtute-tsua, añezkoa bezela, ta batez ere Purgatorioko animen deboto aundia; ta ala, gauero ikusten zan, bakar-bakañik, Ama Birjiñaren azpiko obitegian, anima bedeinkatuakgatik eřegutzen: 1898'gañen urtean, berak 71 zeuzkala, il zan.

III. *Martin Aranburu* anaya, Beasain'daña:


Fraile-jantzia Bermeo'n, artuta gero, Nobiziadua Zarauz'en igaro zuan, andik auferako urteak, ogeitik gora, eriotzaraño, Arantzazu'n egiten zituala. Gizon apala, isila, langilea, ta ezagutu genduan guziok bere birtuteakin aritzen ginduan era-koa, izandu zan benetan: 1906'gañen urtean, berak 62 zeuzkala, il zan.

IV. *Antonio Arakama, Zegamaña*, Frailea izan ezanen, Ama Birjiñaren ondoan Fraileen mofoi bezela, Arantzazu'n urte askotan bizi izanduzana: oregatik toki onetan jartzen degu. Azkene-ko ere aldian, berak, beste lagun batzuekin, gorde ta ezkutatu zituan lapuren atzaparetatik gauzasko, baita bi kanpai ere; ta gero Arantzazu erea beritzeko lanetan aritu zan, argiña ta arotza zanda. Ama Birjiñaren izeneko eskea, ogeitamar urte ta geyagoan, berak egin zuan Napañoa'n; eta, azkenik, Aizkoñi'ko ermitatxoa ere berak, bere kontura, egiña da, artarako eriak eman zion baimenarekin, kostatzen zitzayona gero ordainduko ziolata. Zegama'n, bere etxean, 1891'gañen urtean, eta berak 82 zeuzkala, il zan.

C) — *Emakume jainkozaleak.*

Eta orain Arantzazu'ko emakume elizkoietzaz iztxo bi.

Gorago aitaturik gelditu da *Añiarango Joana* andrearen izena. Emakume onen birtute-usaya urutietara zabaldu zan, eta, kondaira zañak dionez,



Arautzazu inguruko basatxonoa

Fededun Éregeak bein batian beren ondora ere deitu omen zioten beren estualdietan iritzia eskatzeko. Arantzazu'ra bizitzen iñor baño lenago joan zana, bera izandu zan, eta Ama Birjiñaren lenengo zaindaria ere bera. Ez ordea bakaña. Izan zituan lagunak, eta il zanian baita ondorengoak ere.

Oraindik geyago. VI'gn. Alejandro, Eroma'ko Aita Santuagandik Arantzazu'n baita mojaetxe bat egiteko baimena ere iritxi zan, Ama Birjiñaren ondoan bizi nai zuten emakume oyek asko ziralako noski. Mojaetxe au etzan egin; baña ezpairik ezdago beti izan dituala Ama Birjiñak bere ondoan bizi nai izan duten emakume zintzo-jainkotiak; eta oyetatik ez gutxi, txiki-txikitatik etofita.

Emakume jainkozale oyek, munduari betiko agur eginda, etortzen ziran Arantzazu'ra, Andre Maria'ren ondoan beren egunak igarotzera; eta Liburu santuetan (1) aitatzen zaizkigun israeldar alaba ayen antzera, edo obeto esateko, neskatx on-garbi guzien iduri ta ispilu dan Ama Birjiñaren beraren antzera, eliz-ondoko geletan bizi oi ziralako, *geladunak* (*celderas* erderaz) deitzen ziran.

Ines Egia Mendia da geladun oyetako baten izena. Goizueta'ko alaba zan; eta bere umetatik, eliz-ondoan zegoan emakume geladunen etxean, bizi izandu zan, Arantzazu'ko «*Libro Genral*» deritzan eskuidatziak dionez (2): 1866'gn. urtean,

(1) *II Machab.*, cap. III, 19-20; eta *Exodo* XXXVIII, 8.

(2) Iñen arkibide ataleko 14'gn. ofialdean.

eta berak 74 zeuzkala, il zan, eta Arantzazu'n bertan dago obiratua.

Onela gazterik etořita, emen bizi izandu ziran beste iñoren izenik ez dakigu, len aitatu degun liburuak asko izan zirala adirazten badigu ere; baña gazteenak, eta aziago edo elduago etoři ziranenak, guzien izenak jakingo ditu ondo Ama Birjiñak, eta bakoitzak berea, guziak noski artuko zuten zeruan beren saria. ¡Zorionekoak eurak!

I X

Azken eřeketak.

Jaungoikoa'ren asmo ezkutukoak ¿nork ezagutu edo bařuntatu litzake? Iru gizaldi luzeen epean jasotako Eliza ta Bakartegi ikusgařiak, beingoan lur-jo bear zutela, eta aň kostu aundian ta alako nekez egindako lanak, auts biurtuko zirala, ¿nork usteko zuan? Baña, alaxe gertatu zan. Len kristauak beren fede bizi-sendoa azaldu zuten, orain gizonak bere biotz pozoitu-biuřiaren gaiztakeria erakusten du.

Egiaz: Jose Napoleon Bonaparte, emeretzigařen gizaldiaren asieran (1808'an) frantzesak indařez jaři ziguten, gezuřezko eřegeak, Konbentu guziak itxi erazo zituan, oyen ondasunen jabe bera egiten zala; eta Arantzazu'ko Fraileak, beste tokirik askotakoak bezela, beren Ama Birjiña maittea utzirik, Frantzia'ra joan bear gogořian arkitu

ziran 1811'gn. urtean. Konbentua itxi, ta Ama Birjiña Oñatiko pařokiara aldatu zan. Onela iru urte igarota, ařotzak emendik botarik, Fraileak Ama Birjiñarekin itzuli zirañ beřiz Arantzazu'ra.

Ez ordea denbora askoko: zortzi urte bařu bigařen irten beařa. Len ařotzak, orain etxekoak ziran bakardade onetako pake santua galerazten zutenak. Gobernuaren kontrako ixil-lanetan zebiltzala fraileak, bařunen gorderik zeuden armak ikusi bear zirala ta beste onelako mila aitzaki ta askakizunekin, etoři zan Arantzazu'ra soldadu-talde bat 1822'gn. urtean; eta, eskura zetorkien guzia artu ta ondatu ezkeru, sua eman zioten Konbentuari, zati bat baño eře ezpazan ere. Fraile gaxoak Ama Birjiñarekin aldatu ziran Oñati'ra, Bidauřeta'ko Konbentura. Baña, Jaungoikoa'ri eskeřak, andik bederatzi ilabete orduko, ostera, Arantzazu'n arkitzen ziran bai Ama Birjiña ta bai Fraileak.

Aldi onetan piska bat geixeago iraun zuan pakeak: amaika urte. Eta Arantzazu'n ikusi dan egunik beltz-ilun-negargařiena ona nun etoři zan. Mila zortzireun da ogeita amalau'ko Abuztuaren emezortzian, ařatsaldeko bostetatik seiretara bitartean, aurkeztu ziran Arantzazu'n *Txapel-gořiak*, Anzuola'ko seme, Anselmo Iñuřigařo zeritzana, beren buru zutela. Fraileak ařerarik onena egin ziyen: soldaduentzat anoa edo janariak atera zituzten: eta nagusienai, ogeitik gora, konbentuko jantegian bertan aparria eman zitzaizen. Amařak inguruan, zeregiñen baten apukoz, gero lotarako

etoñiko ziralata, irten ziran konbentutik, itz leunakin esker mila emanaz. Amaika ta erdiak izango ziran, Inñuñigaño'k konbentuan sartu, eta Aita Guardianari esan zionean: «Jauna, Rodil nere agintariaren aldetik Eliza ta Konbentua ére, ta fraile guziak bere auñera eramateko, agindu estua dakt. Inguratu edo gertatu ditezke bada, bigar goizeko zortziretarako Oñati'n egon bear degu-ta.»

¡Au turmoi ikaragaña! Guardian gaxoak, negaña zeriola, lañitasun eta estu-aldi artan bururatu zitzaizkan izpide ta erantzukizunak, soldadunagusi biotzgabeko ari eman baziozkan ere, alpeñik izan zan guzia: prestakizunik beañekoenak ere egiteko asti gabe, uñengo goizeko lauretan, soldaduen bayoneten erdian, Ama Birjiña bizkañetan arturik, zotinka ta negañez Letania kantatuaz, bisuts gordiñ eta euri zapañada gogoñak goitik bera zearo oztu ta bustitzen zituala, irten bear izan zuten Fraile eñukañiak Oñati'ra, ta gero andik, Rodil'en aginduz, laister uñutiko tokietara, beren Ama Birjiña biotzekoa Bidauñeta'ko elizan utzita.

Bitartean, Arantzazu'ko Eliza, Frailetxea ta ondoko iru ostatuak, sua ta gaña zeriela, zori gaitzeko argitasunez aldameneko mendiak goñituaz, eñetzen ziran. Iru gizaldi luzeen epean ainbeste diru, buru-auste ta nekeren kostuz jasotako etxeak, bildutako liburutegia, egindako lanak, debotoak bialdutako eskuerañakutsi oroipengañiak, auts biurturik... ¡antxe galdu ziran!

ii !!

X

Arantzazu beria.—Arantzazu-zaletasunaren auferapenak.

Ikusi danez, ondamen aundiak ekañi zituan Arantzazu'ra azkeneko eřeketa onek. Ama Birjiñaren kofradi zařa ere orduantxe galdu zan noski, edo andik bereala beintzat, bada gizaldi ořen erdi-aldean aren aztařenik ezta arkitzen. Eta oraindik Arantzazu bera ta bere oroipen guzia ere ziero galduko ote ziran, bildur izan zitekean.

Baña, ez: suak iñoiz ukitu ez diona, osorik gelditu zan. Oñati'n zegoan alde guzietara mese-deak ixuritzen zituan Ama ongilea, bere seme ta debotoai deika, bere ondora etoři zitezen eta eřetako etxea beřiz egin zizayoten. ¿Nola ez entzun zeruko Eřegiñaren deiak, Berak opa zuana, Euskaleři guziaren gogoan, ondoraño sarturik, baze-goan?

Egiaz: uřengo urtean, an zeuzkan bere ondoan, Bidauřeta'n, uřutietatik etořita, bere lenagoko zenbait seme (1); bada Oñati-eřia, garai artan, kar-

(1) Beste batzuek Arantzazu'n bertan arkitzen ziran lenagotik: Fermin Egiamendia ta Jose Manuel Elgea, Aita Fraileak, beintzat bai, ta azkeneko au eřeketaren uřengo egun berberetik. *Sindika*-etxean ostatua artu, eta meza santua ere, antxe bertan antolatutako otoiztegi batean, ematen zutela, bizi izandu ziran, onela beren etxe ta eliza eře beřiak uřagotik obeto begiratu ta zaintzeko asmoarekin.

listen mendean nola baizegoan, oyek Arantzazu'ko Fraileai, nai zutenean, beren lengo tokira biurtzeko eskubidea eman ziyeten. Asmo onekin, bada, eta aurretik beaferko lanak egiten ziran bitartian, bildu ziran Fraileak Bidaur eta'n, eta emen jaraitu zuten, Irudi agurgaria zaitzen eta, Arantzazu'n bezelaxe, beren elizkizunak egiten, arik eta, 1840'gn. urteko abenduaren 21'an, Espartero'k frailetxe guztiak itxirazi zituan arteraño; orduan aldegin biar izan zuten gazteak, irurogei urtez gorakoak baka-rik apaizjantzian ta *beneragarrien* izenarekin, gelditzen zirala, onetarako baimena legeak ematen zualako. Azkenik, gauzak zerbait paketuta, fraileen alegiñakin eta euskal debotoen limosnakin Arantzazu'n beaeren beaereneko lanak eginda, Ama Birjiña zaintzeko lau Aita Kapilau, au da, Jose Maria Egi-luz, Elias Afergi, Jose Domingo Albeniz eta Martin Gea, lenengoa beste iruren Nagusi zala, Calahorra'ko Obispo jaunak izentatu zituan; eta onela, 1846'gn. urteko azaroaren 19'an igotzen zan Ama Birjiña bere antziñako egon-lekura, alkaeren leyan aldatzen ziran apaiz jaunen bizkaferetan, bost mila ta geyago euskaldunez inguratua. Ora zeñ ederki erantzun zien euskaldunak Ama Birjiñaren de-yari.

Aita Kapilauak Arantzazu'n jarita bereala aurenengo egin zituzten lanetatik bat, latin-izkuntzaren erakuskintza ipintzia izan zan, Albeniz Aita maixu zala. Onetarako Aita fraile au joan zan Valladolid'era, ta artu zuan erakusteko biar zan baimena,

bada izkuntz onen erakusle izateko, auřetik ikastetxebururen batian aintzakotzat emana izatia biarzan. Ozta zabaldu zan ikastetxe beřia, bereala asi ziran lau euskal-probintzitatik mutil gazteak etortzen, denbora gutxi bařu etxea betetzen zala. Orduko ikasleak dira, beste askoren artean: Jose S. Zigořaga, Teruel eta Granada'ko *Dean* izandu zan jaun argia; Asunzion Guřutxaga, Gazteiz'ko apaizgayen azitetxeko erakusle jauna; ta Ladislao Sagastizabal, Oñati'ko pařoko jauna; Gogorza, Murgiondo, Umerez... apaiz jaunak; Jose Lertxundi ta Agustin Azpiazu, Franziskotar ospetsuak; Ignazio Aranburu ta Fermin Etxebeřia, Jesusen Lagundi'ko seme ezagunak; eta Gaztelu eta Casares, sendagile jaunak.

Egiluz Aita uřengo Mayatzaren 28'an il zan, nagusitzan Elias Ařegi Aitak jařaitzen ziola. Arantzazu'ko Nagusietatik argienetako bat, bildur gabe, Aita agurgari au izan zan, toki santu ura estuasun aundietatik atera zualako eta Ama Birjiņaren alde lan asko egin zualako.

Estuasun oyetatik bat, eta ez txikiena, *kolera* deitu zitzayon 1855'gn urteko gaitz izuřitsu-bildurgari ark eman ziona, izandu zan. Gaitz au, ustez, igesi etoři ziran kanpotarēn batzuek ekařita, sartu zan Arantzazu'n: bertako bizi lagun guziak, edo geyenak, bai fraileak eta bai gaņerakoak, Arkaya Aitak esaten digunez, gaisotu ziran; eta Konbentuko moři bat, ikastetxeko mutil gazte bat eta ostatuetan zeuden kanpotarēetatik bat edo

beste, il ere bai (1). Frailerik ordea etzan il. Ama Birjiñak noski gorde zituan, Espilosin Anai agurgariari egin zitzayon agindua onela betetzen zala.

Baña gaitza, Arantzazu'n aitu orduko, erian agertzen da. Oñati'arak, beren estualdi aundietan beti egin oi duten bezela, bereala beren begiak Ama Birjiñagana biurtu zituzten; eta Irudi agurgaria beren artean ikusten oituak zeudelako, eske ta eske asi ziran beriz ekañi zedila, orain ere, parokiko elizara, bederatziuren nagusi bat egiten zitzayon bitartian. Jetxi zan, bada, Ama Birjiña Urilaren 8'an, eta 18-raño, bederatziurena egiten zitzayon bitartian, parokian egon zan, Arantzazu'ko Aita Kapilau Nagusiak berak aldareko lana egiten zuala, ta Jose Antonio Lertxundi, ango ikastetxeko mutil gazteak, au da, geroago Lertxundi Aita ospetsua izan zanak, organua jotzen zuala, eriko organojotzalia, *koleraren* bildurez, eritik iges egiña zalako. — Ama Birjiñaren laugarren jetxi-aldia erira, au izan zan; eta bertan agertu zan, inoiz baño obeto, zeñ onginai berezia dien Ama maite onek oñatiañai, ta nola bere seme kuntunai bezela begirutzen dien beti; bada Irudi agurgaria jetxiaz bat asi zan gitxitzen gaitz izuritsua, gero ziero aitzen zala.

Bederatziurena bukatuta gero, biurtu zan Irudi Santua bere tokira, begirapen eta jayeraz ingu-

(1) «Libro General» deritzan eskuidatzian, Iñen arkibide ataleko 9 eta 10'gn. ofialdeetan.

raturik, añ Eregiñ ongile ta altsuari zegokion bezela, ta afezkero emen dago, ernai ta gertu beti, datorkion guziari bere eskaria entzuteko.

Baña Elias Afegei aitak lan asko egin bazuan Arantzazu'n, oni jañaitu zioten Nagusiak etziran alegia lo egon. Estarta, Epelde, Afeue, Martinez... ta beste Aita Nagusiak, guziak alkañen leyan bezela, dakuskigu, toki santu au goratu, edertu ta apaintzen; ta eurak bezela, Ama Birjiñaren Zaindარი diran Arantzazu'ko beste Fraile guztiak ere. Eta onela, guzien eta bakoitzaren neke, izerdi ta alegiñakin, Birjiña maitagañi onekiko jayera iragoko befogei ta amar urte oyetan zenbat geitu ta afe-ratu dan ezagutzezo, bitarte onetan emen egin diran lanai begiratu baño eztago. Gezaltza'tik afe-rra arkaitz bizian idiki dan kotxebidea; Zapata'tik Arantzazu'ra bitartean, Efosario santuko misterio-en izenean, egin diran amabost kapilatxoak; oraiñ mutil gazteak daukaten bidez gañetiko ikastetxe egokia, elizako aldare eder-ikusgañiak; soñu gozoak zabaltzen dituan organua..., oña, gure egu-netan ere Ama Birjiña Arantzazu'koaren-ganako maitetasuna zeñ aundi eta bizia dan, otska ta dea-darka adirazten duten gauzak. Gañera 1903'gn. urteko Epailaren 8'an ekin zitzayon konbentu zañaren beñitzeari, Juan Jose Afeue, Probintziko Aita Nagusiak, lenengo aña ipintzen zuala, eta, aldiko zati bat egiñaz, 1913'an, amar urteko nekeen bu-ruan, azkeneko zatiari eman zayo bukaera. Eta ori guzia asko ezpalitz bezela, lan oriekin batera edo

orien tartietan, oraindik tximistargia jañi da; tximist-indañez erabiltzezo lantegiak egin dira; Arantzazu'tik Oñati'ra urutizkiña (telefonua) ipiñi da; ostatu-etxe aundi-eder-egokia ere jaso da; Ituñgo-fi'ko eřekatik urak ekañi dira..., eta, gañera, aldare-nagusi ostean Ama Birjiñari Gela edo Kamarin aundi bat egiteko lanketa ařigariari ere asiera eman zayo.

Besterik beřiz, Arantzazu'ko Andre Maria, gure Ama ta Eřegiñatzat, aundikiro koroatua izan da; aldare ta irudiak Donostia'n, Tolosa'n, Zarauz'en, Bermeo'n... jañi zaizkio, ta onela Beraganako zaletasun eta jayera bizia eřietan, gero ta geyago, zabalduaz dijoa; eřomeri aundi ta edeřak alde guzietatik badatozkio; ta azkenik, gure Ama maite ta altsua, Gipuzkoa guziko *Zaindari*'tzat autu ta ospatua izan da.

Ama Birjiñaren debozioa agertzeko, ¿zer testigu oberik lan oyek baño? Eta Eřegiñ aundi onenganako bere Aita Kapilauen ařeta zoli-begiramentsua adirazteko ere, ¿zer bide argiagorik...?

Beraz Ama Birjiñaren berarizko zaindari ta maitale izan ziran eta diran Aita agurgari oyei guziaz, gure biotzeko zorion-aguřik bero, sutsuena; bada eurai eta beren beste laguntzale zintzoai eskeřak ainbeste gauz eder ta egoki gaur Arantzazu'n dakuskigu, eta, batez ere, Maria-ganako zaletasun bizia eřietan zabaldu da, eta anziñako bakarleku aundi-ařigaria oster bere oñean dakusgu.

Fenix edeña deitu zion txit egoki Felipe Arese euskal-olerkariak etxe oni, ura bezela il, eta bere autserik beriz piztutzen dalako.

Bada, ¡o bakartegi santua!, egazti miragari aren antzik badezu,

Aunditu zaitez, bera bezela

Apain ta eder jantzia,

Artu ezazu orain betiko

Laugarren aldiz bizia,

Zeruko Uso edeñarentzat

Izan zaitez en kabia,

Fenix guztien fenix zerata,

Arantzazu'ko Maria.



B U K A E R A

Gure Ama Zaindaria Euskal-erriari erukia artuta, arantza baten gañean agertu zanetik, laureun urte ta geyago igaro dira. Ordutikan ona, Arantzazu'ko kondairak, ikusi dan bezela, gora-bera aundiak izan ditu; baña gaurko egunak ordukoakin duten adiña antz, izan dezaketen egunik, bitarte onetan nekez arkituko da. Orduan bezela, gaur ere buñukan gabilz jai! anayak anayen aurka, katolikoak katolikoan aurka, elkar eziñ ikusirik, etsaitasunik bizienaz goñotutzen gerala; orduan bezela, gaur ere, infernuko etsaia, gure kristau-fede garbia ilundu eta oitura on-zuzenak okertu nairik, ikasbide galgañiak zabaltzen, ari da.

Baña, ez bildurik izan. Artzaitxoak basamortuan arkitutako Irudi agurgañia, gerokin daukagu gaur ere, zeruko Erégiñ altsuari dagokion bezela, zilar eta urrez koroaturik, aldare nagusian, zilarrezko jargoyan, ogeita bederatzi ispilu diz-diz egiten dutenen erdian, agertu zaneke arantza beraren ondoa azpian eta kanpantxoa aldamenean dituala, eta iñork ikusi nai duanean, argiak piztu ta bi estalki, bata bestearen ondoren, jasota, begiramenturik aundienez agirian ipintzen dala. Lenago anai asaretuak paketu zituenak eta sorginkeria ta fedetsaiak puñukatu zituanak, ez aldeake ga-

ur beste ainbeste?... ¡A! siniste arotz eta okeak aldendu, oitura txakak galerazi eta Jesukristo'k utzi zigun bata-besteaganako karidade edo maite-tasun añ otzitu au piska bat irazeki dezagun, eta anziñako euskaldunak bezela, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren magalpean bildurik, elkar besarkatu ta laztandu gaitezen, luñean belaunak ezañita Berari biotz biotzetik deituaz:

Aditu zazu Ama
Arantza-tronutik:
Euskaldunen fedea
Gorde zazu zutik;

eta oraindik... gure *Lege zañeko* kristau-sinisme-na biurtuko zaigu, eta botako ditu sustakak, eta len bezin sendo ta iraunkor jaikiko da, eta bere adar zabal-ostodunen itzalpean galanki biziko gera.

Betoz, bai, ¡o Arantzazu'ko Andre Maria!, betoz egun obeak: Aloñako arantzagañ ofetatik Euskaleñia zaindu ezazu, lur maite bedeinkatu onetan kanpoko etsairik sartu ez dakigun; eta zure lagun-tzarekin, negañezko ibar au ongi ta zuzen igaro ezkerro, zure ondora, zerura, egunen batean igo gaitezen. Bai, ¡añen!

BEDERATZIURENA



Arantzazu'ko Andre Maria

ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑAREN BEDERATZIU'ENA

OARKERA

Bederatziu'én au noiz nai egin diteke: norberak gogoa ta jayera idukitzea edo Ama Birjiñagan-dik mesederen bat iritxi nai izatea asko da, bederatziu'ena ordu onian egiteko. Osterantzian, onetarako garairik onen da egokiena Agoñilean izango da. Agoñaren lenengoan asi eta andik bederatzigaren egunean, au da, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren jayan, bukatzen dala. Orduantxe egiten da Arantzazu'ko Elizan ere. Baña, edozeiñ garaitan egiten dala bederatziu'ena, Ama Birjiñaren atsegiñekoa eta norberaren onerako izan dedin, lenengo eguneko Gogartean jañiko diran oarkerak euki bitez gogoan.

Oartu bitez baitere guziak, Arantzazu'ko Ama Birjiñari Bederatziu'ena egiteagatik, egitaldi ba-koitzeko eman dutela: Toledo'ko Arzobispo Kar-denal jaunak *100 eguneko barkamena*, eta Gazteiz (Vitoria)'ko Obispo Jaunak *50 egunekoa*.

Gañera, Arantzazu'ko eliza barkamen aundi ta ugariz aberasturik arkitzen da, ta Arantzazu'n ber-

tan bederatziurēna egiten dutenak beintzat, animako ondasun oyezaz ere balia ditezke. Barkamen oyek noiz da nola irabazten diran, *Kondairan*, VIIgn. atzalburuan, esaten da.

Prestaera oyekin egiten badezu, kristaua, Bederatziurēna, siñisturik egon zaiteke, Ama Birjiñak gogoan artuko dizula, egiten diozun eskaria; eta oker badijoa ta zure kalterako izango bada, Berak zuzenduko duala, zuri geyen dagokizuna emanaz. Berak gorde zaitzala beti. Agur.

≠ = ≠

LENENGO EGUNA

Gurutze santuaren...

Maitedamu egintza

Jesukristo nere Jauna, Jaungoiko ta Gizon egiazkoa, nere Egile ta Salbatkalea. Zu, zerana zeralako, ta gauza guziak baño geyago maitatzen zaitudalako, damu det, Jauna, biotz guzitik gaizki egiña ta zure Ontasun azkengabea naigabetua. Eta ez geyago pekaturik egiteko asmo sendoa artzen det, Ama Birjiña, zure Ama ta nerearen ize-nean eskatzen dizudan laguntzarekin.

Eta zuk, nere Zaindari ta Laguntzale maitagarria zeran orek, artu nazazu zeroñen ardura pean, eta bear dedan animako berotasuna indazu, bederatziuren au zure aintza ta nere animaren onerako ongi egin dezadan. Amen.

Asierako otoitza

Arantzazu'ko Andre Maria, gizon guzien, eta batez ere zure egiazko semeen, Ama biguna! Rodrigo, zorioneko artzaitxo ura bezela, emen zure aurrean umilki belaun ikaturik, nere biotz guztitikan eskatu ta eregutzen dizut, zure Seme Bedeinkatu, Jesus gozoarekiko eskubide ta bitartekotasuna nere alde jañen! ipiñi dezazula, Bederatziuren

onetan eskatzen dedana, on baldin bazait, Bera-
gandik iritxi dezadan; eta bestela beñiz, zuzendu
ezaza zeroñek ¡o Ama eñukitsua! nere eñegua, ta
nere animaren onerako bakañik izango dana Jau-
nari eskazayozu. Amen.

LENENGO EGUNERAKO

GOGARTEA

Bederatziuñena nola egin bear dan

Bederatziuñen au Ama Birjiñaren atsegiñekoa
eta norberaren onerako izango bada, iru oarkera
gogoan euki bear dira:

Lenengoa. Bederatziuñena asi auñetik, edo
asita gero, zuzendu bitza bakoitzak, konfesio on
baten bitartez, animako lanak, Jaungoiko'ak bere
eñeguak entzutea nai badu; eta bein edo geyago-
tan Gure Jauna añbeza, bere Aita Konfessorearen
baimenarekin.

Bigañena. Kontu egin bear da, bederatziuñen
au animaren bakartaldi bat, edo munduko iskan-
biñla, jolas eta uskeri zoroetatik bakardadera alde-
gite bat bezela dala, an kristauak, bere bañenean
sartu, bere biotzeko griña ta ustelkerietan aztertu,
eta arteraño eraman duan bizimodu okeña edo
beintzat epela ikusita, Jaungoikoa'ren grazia ta
Ama Birjiñaren laguntzarekin, beste bizitza on,
zuzen, bero bat auñerakoan egiteko, asmo sendo-
egiazkoa artu dezan. Gogo santu ta asmo zuzen

au bederatziurenera ez deramanak, eskatzen duana Jaungoiko'ak emango dionik, eztu zer uste izan.

Irugarrena. Iritxi nai dan mesedea, al dan uste ta itxaropenik aundienarekin eskatu bear zayo Ama Birjiñari, baña beti erantsiaz: «Jaungoikoaren borondatea bada».

Prestaera oyekin Bederatziurena egiten badezu, kristaua, Ama Birjiñaren gogokoa eta zeroen onerako izango dan uste osoan egon zaiteke.

Sartu bedi orain bakoitza bere barenen, eta irakuraldi ontzaz ausnar piska bat egin beza.

(Bitartean, edo ondoren, Arantzazu'ko asiera duan abestia. — I gn. orialdean arkitzen da — kantatu diteke).

GERTAKETA

Gure asaba ta au'etikoak Arantzazu'ra, Ama Birjiña ikustera, zijoazenian, begira nola egiten zuten beren bidezkunde jayeratia. «Guziak joan oi ziran lotsa on eta begirune santuz beterik, batzuek oñez urutietatik, ez gutxi ortozik eta zenbait belauniko; asko baita astindu edo zigorkatu ere egiten ziran bidean; eta guziak, Eliza bigiztatzean, belaunikaturik agur egiten zioten Ama Birjiñari, *Agur Maria* esanaz: eta aitortu ta janarturik, biurtzen ziran era berean, nor bere etxera, ango ogiapurak ere erlikia batzuek bezela etxekoai erama-

naz». Ala esaten digu Luzuriaga aita, Arantzazu'ko kondairagileak (1).

Zuk, bada, kristaua, Bederatziurēna jayeraz egin nai badezu, artu ondo gogoan ispīlu eder onen ikasbidea.

Orain, agurtuko degu Andre Maria, bere izen gozoak, dituan bost letren oroitzan, esanaz bost Agur Maria.

Emen, fedea piztu ta biotza jasota, eskatuko dio bakoitzak berak Ama Birjiñari, al duan ustetik aundienez, bear duan edo opa duan mese-dea.

Ondoren esango da:

A Z K E N E K O O T O I T Z A

Arantzazu'ko Birjiña eder eta nere biotzeko Ama txit gozo-maitagaña! Euskaleria izaerarik negargañiengan arkitzen zala, eta leorte aundi bategen bazter guziak ikaraz izuturik zeuzkanean, mendi santu onetan erukiz beterik agertu zian Zu, gure ez-bear eta zorigaitz guziak estali ta sendatzera. Ordutik ona, euskaldunai eta batez ere zure maitaleai egin diztezun ongiak eta mese-deak konta-eziñak dirala, neuririk eta mugarik ez dutela, esaten dute zure eskuetatik osasuna artu

(1) *Paraninjo celeste*, L. II, 92.

duten éren, gor, itxu eta mutuak, eta deabruaren katigutasun gogóretik atera dituzun érukañiak; berebat diote ekaitz gogóren erdian, zuri deituta, bizirik atera diran itxas-gizonak; eta aitortzen dute azkenik, ainbeste neke ta estuasunetan, zuri eskeñak, laguntza arkitu izan duten milakak; bada ezta iñor, zerbaiten eske zugana joan eta bear bezela eskatuta, esku-utsik bialdu dezunik. Beragatik, ni ere, ¡o Andre érukitsua!, zuri natorkizu éreguz, baldin, oraindaño, itxuturik eta nere animaz azturik, deabruaren mendean eta moñontzan bizi izan banaiz, lagun zadazula etsai deabruak eransi dizkidan kate sendo oyek uratzen eta nere Jaunarekin pakeak egiten. Gorde nazazu zure magalaren azpian, pekatuaren lokatzarte zikiñetan eta deabruaren atzapar izugarietan beriz erori ez nadin. Eta zuri agur eginda gero, etxera biuritzen naizenean, eta bidetik, basotik, menditik edo nagoan tokitik, nere neke-aldietan eta estu-lañietan nere biotzeko intziri eta deyak mendi-oste onetaraño bialtzen dizkitzudanean, ez jañen! ukatu niri, ene Ama laztana, zere esku ongile óren laguntasuna. Orduan, orañ eta beti lagun zakizkit, Arantzazu'ko Ama érukiz betea, egiazko kristau on bat izaten eta azkeneko asnasaraño Jaungoikoaren agindu santuak gordetzen; eta berebat, orañ bederatziuñen onetan eskatzen dedana, Beragandik iristen ere, baldin nere animaren onerako izango bada. Amen.

Bereala esan diteke (Elizan edo Apaizen batekin egiten bada beintzat bederatziurera):

Ant. Rubum quem viderat Móyses incombustum, conservatam agnovimus tuam laudabilem Virginitatem: Dei Génitrix, intercède pro nobis.

ÿ. Dignáre me, laudáre te, Virgo sacráta.

R). Da mihi virtútem contra hostes tuos.

Orémus.

Omnípotens sempitérne Deus, qui integérrimam Beatae Maríae virginitátem signis mirábilibus praemonstráre voluísti: ejus méritis et intercessióne concéde; ut a saeculi cupiditatibus expediti, Tibi fidéliter famulári, Teque in aetérnum pérfrui valeámus. Qui vivis et regnas in saecula saeculórum. Amen.

Eta V'gn. orialdean arkitzen dan Agur, Agur, abestuaz bukatuko da.

BIGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

*Arantzazu'ko Ama Birjiña gure
Fedearen zaindaria.*

Ama Birjiña gure Federen Ama ta zaintzalea dala ezagutzeko, Jesus gure Fede-emalearen Ama dala jakitea, asko degu. Maria'k, Espiritu santua-

ren indaíez, bere eíai garbietan Jaungoikoaren semea sortu zuan, eta Kalbario'ko mendian, oñaze samiñez, izate goitiko bizitzara gizon guziak berbat sortu zituan; era onetan gu guziok Jesus'en anai biurtzen giñala, eta Maria bera Kristotar siñisle guzion eta Eliza guziaren Ama egiñik gelditzen zala. Bidez esaten du, bada, Efren santuak (1): «Mundura bizitza Maria'ren bitartez etoñi zan, bizitza berbera dana berak argitaratu zezan eta bizilari guzien Ama izan zedin».

Oñegatik, munduko Salbatzailea zerura igo zanean, Maria'k bere kontura artu zuan Eliza jayobeñiaren zaindaritza: Apostoluak, auñez beren Jainko-Maisuak izentaturik zeuzkaten tokietara, berak baildu zituan, eta Jaunaren langile ayei, Fede santuaren zabalkuntzako neke ta arazoetan biarzuten laguntza ta indaía ere, berak eman izanduziyen, Españako alderdi oyetara etoñi zan Santiago Apostoluarekin, Zaragoza'n agertuaz, egin zuan bezela.

Gañera, Ama Birjiñak Elizaren etsai guziak beti garaitu ta poñokatu izan dituala ¿nork ezdaki?. Albi'taren artean Eñosario santuaren bitartez egin ziran on-biurtze miragañiak, eta gero Lepanto'n eta Viena'n kristauak turkuen kontra, eta Kobadonga ta beste tokirik askotan gure Pelayo ta beste kristau-gudari kementsuak mahomañen kontra, Ama Birjiñaren laguntzarekin irabazi dituzten

(1) *Serm. de Laud. Virg.*

garaipenak, gogoratu baño eztaukagu, ta ezagutuko degu zeñ bidez gure Eliz Amak Efeso'ko Bazar santuarekin esaten dion Maria'ri: «Zuk bakañik, o Maria, fedeauste guziak azpiratu ta pofokatu dituzu».

Beraz, Ama Birjiña Fedearen Zaintzailea da; eta ez bakañik erbestean, baita Euskalerian ere, ondorengo gertaldian argiro ikusiko degun bezela.

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Begira zer mesede miragaría egin zion fede santuan Euskaleriari, bere Zaindari arduratsu onek, amazpigarén gizaldiko lenengo urteetan. Garai artan, Napañoan, Frantzi aldeko mendiak sorgiñez beteta izuñiturik zeuden: biltzen ziran oyek beren *akelañeetan* eta, deabrua bera maisu zutela, mila ezin esan alako itxusikeri ta gaiztake-ri egiten zituzten, kristau sinismenaren eta oitura on-zuzenen kalte aundian. Bada Ama Birjiñak, bai berberak mutil koskor eta neskatxai, aúean jañita, beren euskera izkuntzan ematen zizten ikasbi-deakin, eta bai bere seme, Arantzazu'ko Fraileak, alde ayetan egin zituzten erakusaldi eta sermoyen bidez, isildu, mututu ta goiberaturik utzi zituan sorgiñ ta akelañeak.

Orain, bost bider...

IRUGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

Arantzazu'ko Ama Birjiña gure itxaropena.

Ama Birjiña-ganako gure itxaropena bere Jainko-amatasunetik dator.

Jaungoikoa'k bere Amatzat autu zuanetik, Maria, kriatura bat doai ta birtute guziz apaindua ez ezik, txit aldun eta eskubide andikoa ere bada. Oregatik gure uste guzia Beragan jartzen degu.

Bada luñean bizi zala, amarik ernai-begirakorenak bezela bere Semeari mirariak ugari gizonen alde eragiten baziozkan, ¿zenbat geyago eragingo eztiozka orain zeruan? ¿Zer ukatuko dio Amari Semeak bere eñeinuan? Orduan graziz betea bazan eta guziz edeña Jauugoikoa'ren begietan; orain, eguzkiz jantzirik eta izañez koroaturik, zeruko aingeruak izaki guzien eñegiñatzat donetsi ta goratzen dutela, ¿zeñ maitagaría izango ezta? Eta baldin Aita Betikoak bere Seme bakaña eman bazigun Ama Birjiñaren bitañtez, ¿zer ukatuko digu guri, Ama maite onen izenean eskatzen badiogu?

Irakaskintza au ordia ezta oker aditu biar. Pekatari batek, bere gaiztakeriak utzi gabe Ama Birjiñari deituta bakañik, zerua ta beste egiazko ondasunak iristea uste badu, onelako pekatariak al-

peñiko ustea dauka. Gure gaiztakeri ta pekatu-bide guziak utzita gero, goazen Maria'rengana asmozuzen eta gogo onez bizkorturik, eta orduan izango da ona gure ustea ta bidezkoa gure itxaropena.

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Mila seireun da ogeitamaika'gañen urtean, España'ko ta Olanda'ko gudontzidiak aurrez-aurre ikusi ziran Fernanbuko'n. España'ko gudontzidi guziaren agintari, Antonio Okendo Gipuzko'ar ilezkoña zan, eta estu ta lañi arkitzen zan, etsyaren indañoak aundiak ziralako; baña suari ekiterakoan, deitu zion Arantzazu'ko Amari, jayera bizia zion-da, Beragan uste osoa jañirik, eta garaipenik ospetsuena irabazi zuan. Okendo'k bere esker onaren agiritzat, bi bandera bialdu zituan Arantzazu'ra, eta gañera, bere ontzian sartu ziranetako bala aundi bat, zilañezko zintaz apaindua eta idazkun luze bat gañean zeukana, Arantzazu'ko Ama Birjiñari bere *Laguntzale bakaña* deitzen ziola. Bala au sakristian gordetzen da gauñ ere.

Orain, bost bider...

LAUGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

*Aruntzazu'ko Ama Birjiña Jaungoikoa'ren
eta gure arteko Pakegilea.*

Gure lendabiziko gurasoak pekatu egin zute-
nean, Jaunaren asafepean jausi ziran, alde guzie-
tatik zauriz bete ta izaerarik negargarienean gel-
ditzen zirala. Baña Jaungoikoa bere eskuetako
egituraz kupitu zan eta agindu zion barkamena
esanaz: Gizonak etzuan merezi nere erukia, baña
nik sortuko det nere asafearen gozagarri izango
dana; bere izenean barkatuko diot gizonari: *Arcum
meum ponam in nubibus, et erit signum fœderis
inter me et inter terram* (1). Eta odeyetan ager-
tzen dan ostarkua, eguraldia bereala atertuko
duan agiri bat izan oi dan bezela, alaxe Jaungoi-
koa'k Maria sortu zuan, gurekin egiten zituen pa-
keen agiri eta ezagungarri izan zedin. Begira emen
Mariaren lan eta eginkizuna: Jaungoikoa'ren eta
gure artean pakeak egitea, asafetuen artean Bi-
tarteko izatea.

Baña Ama Birjiña, ez bakarik Jaungoikoa'ren
guganako aserea gozatu ta biguntzen duana, bai-
ta gu bata-besteon arteko Pakegilea ere bai da.

(1) *Gen. IX, 13.*

Juan Ebangelista santuak ala adirazten du: «Ikuskai afigaŕi bat agertu zitzayola zeruan, — dio —; Emakume bat eguzkiz jantzita, eta ilargia oñ-pean eta amabi izaŕekin egindako koroï bat buruan, zituala» (1). Emakume ura ¿nor zan? Jesukristo gure Burua sortu zuan eŕugabeko Ama Birjiñaren irudi bat baizik ez. Baña emakume ura, zeruko zoriontasunian egon aŕen, auŕegiteko bezela omen zebilēn, ordu artako esturasun eta miñak oyu ta gaŕaxi biziak ateraerazitzen ziozkatela. ¿Ze aurgintza izan zitekean emakume arena? Jaungoikoa-ren karidadean gorengo maŕara ta zerura argitaratzen gaituan aurgintza noski, ez besterik, erantzuten dute Eliz-Irakasle santuak.

Mundu onetan bizi geran bitartean, asototan karidadean utsegiten degu. Jakob eta Esau'k beren ama Rebeka'ren sabelean zeudenean bezela, alkaŕen arteko pakea galeraziaz eta Jaungoikoa'ren asaŕea gureganatuaz; oŕegatik kezka ta arduraz beterik dabil Ama Birjiña, zeru-gañetik guri begira, Jaungoikoa ta urkolaguna maitatzeko agindua ausi ez dezagun; kezka ta arduraz beterik dabil, gu zerurako argitaratu nairik. Bere aurgintzako laŕitasun eta estualdiak bada, guri, Jaungoikoa'ren maitetasunian eta alkaŕen arteko anaitasun santuan biziarazita gero, zerua eman nayak dakartzkionak dira. Asaŕetu diranak adiskidetasunera biurtzeko gure Ama maite onek egiten dituan ale-

(1) *Apoc.* XII, 1.

giñak beraz, ¿nolakoak izan biar ez dute? Eta pakean bizi diran anayen arteko alkartasun santua, galazi ez dedin, geyago lotu, indartu ta sendatzeko artzen dituan neurriak ere ¿zenbat eta nolakoak?

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Amabost'gañen gizaldia erditik auñera zijoan. Euskaldunak, uskeri batzuekgatik, amofatuta bezela, alkañen kontra buñukan zebiltzan: eñiak eñien kontra, aideak aideen kontra, etxenagusiak etxenagusien kontra. Jaungoikoa'k, alako buñuka gorotagañia ezin eramantik, eta buñukalariak kontuan jauzi zitezen, bi urteko leorte izugañi bat eta ez dakit beste zenbat gaitz eta izuñite ondatzale bialdu zituan Euskaleñira.

Baña, azkenik, Jaungoikoa eñukioñra izan! Esan zuan, bada, lenago bezela: *Arcum meum ponam in nubibus*: «nere ostarkua ipiñiko det zeruan: jende oñi pakea eragingo diona bialduko det». Agertu zan Aranzazu'ko Ama Birjiña eloñi-arantza baten gañean, eta emendik Maria'k egiten zituan mirarien otsa, eldu zan buñukalarien biotzetaraño. Jaungoikoa'ren zigoñada latza aintzakotzat artu etzutenak, bigundu ziran Maria'ren deira, eta one-la, Ama Birjiñari eskeñak, egundo eten eta puskatu biar etzuten pakearen lokañi santua lotu zuten beñiz anaitasun sendo baten korapilarekin.

Begira, kristau maitea, nola dan Ama Birjiña, Jaungoikoa, gurekin asafe danian, adiskidetzen duana. Begira nola dan Ama Birjiña, asafe diran anayak pakean ipintzen dituana.


Orain, bost bider...

BOSTGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

*Arantzañu'ko Ama Birjiña
garbitasunaren ispilua.*

Ama Birjiñak, sortzez txit garbia izan zan bezela, alaxe garbitasuna txit maite izan zuan beti, adirazi ditekean baño geyago. Garbitasuna beti ta ausi gabe gordetzea, izan zan Maria'ren asmo bakaña ta gogo guzia, bere aurtasunian, gazte-aroan eta bizitza guzian: bizitzen asi orduko bururatu zitzayon lenengo gogorapena ta artu zuan lenengo asmoa. Maria, bada, guzia ta alde guzietatik garbia da: garbia gorputzean, garbia animan, garbia gogamen eta egite guzietan, iñork ukitu eztiona ta iñork egundo kutsutu eztuana. Mundu guziko eñiak, andikeriak, ondasunak, garbitasunaren ondoan, utsa dira Maria'rentzat, eta bere garbitasuna gordetzeagatik pozik guziak utziko ditu. Oregatik, Jaungoikoa'k bere amatzat auturik zeukala aingeruak iragañi zionean, Maria izutu zan, bere garbitasunak andik kalterik izango ote



1931' garen urtean Ama Birjiñaren bederatziruenean abestu zuan abespatza

zuan bilduñez; eta bere garbitasuna osorik geldituko zala, au da, birjintasuna galdu gabe ama izango zala, jakin zuanean, orduan eman zuan bere baimena, arteraño ez. Garbitasunari izan zion maitetasuna alakoxe aundi ta ezin geiagorañokoa izanðu zan.

Baña Maria'ren maitetasun au Arantzazu'n oraindik obeto agiri dala dirudi. Bada bere agerpena egin zuan, goian, bakartasunean, arantzartean; onela guri, bide batez, garbiak izateko zer neuri artu biar ditugun, adirazi nai baligu bezela.

Lenengo, *goian* agertu zan, guri aditzera emanaz, garbiak izan nai badegu, gora, zerura, zuzendu biar ditugula gure otoitz eta eskariak, zeruko laguntza gabe iñor garbi ezin bizi ditekealako, Jakintsuak bere buruaz aitortzen duan bezela (1).

Gañera, *bakartasunean* agertu zan, garbiak izateko biala degula gaitz-urte edo pekatu-bidetatik alde egitea, guri adiraziaz, bada Espiritu Santuak dion bezela (2): *añiskuan dabilena, añiskuan bertan galduko da.*

Azkenik, *arantza artean* agertu zan, garbitasunaren lirio edera aragiaren ildura ta laztasun artean bakañik gordetzen dala, guri adierazteko, Jaunak berak ere dionez (3): *Arantza artean lirioa bezela, alaxe da nere maitea...*

(1) *Sap.* VIII, 21.

(2) *Eccli.* III, 27.

(3) *Cant.*, II, 2.

Beraz, garbitasunaren birtute bikaña iritxi ta gordetzeko egin bear deguna da, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren ispilu eder onetan begiratuaz, eskatu beti Jaunaren laguntza; aldegin pekatu-bide guzietatik, eta ukatu ta ilduratu gorputz eta animako zentzu eta almenak, eta gure buruaren gurari ta griña oker guziak.

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Kondairak(1) esaten digunez, badira neskatxak, beren garbitasuna Jaunari eskeñita, txiki-txikitatik Arantzazu'ra aldendu diranak. Gazte oyek, Liburu santuetan (2) aitatzen zaizkigun israeldar alaba jainkozale ayen antzera, edo, obeto esateko, neskatx on-garbi guzien irudi ta ispilu dan Ama Birjiñaren beraren antzera, txikitatik agur egiten zioten munduari, ta emen, eliz-ondoko geletan, beren egunak igarotzen zituzten, onela Andre Maria'ri garbitasunean eta beste birtute guztietan beren alegiñian jañaitzen ziotela.

Oyezaz gañera, ¿nork daki zenbat mutil gazte ta zenbat neska gazte atera diran Arantzazu'tik, munduko zorakeri ta gezuñezko atsegiñai bein betiko agur eginda, Jaungoikoarenak bakañik izateko asmo bero ta sendoz beterik? ¿Nork daki

(1) VIII'gn. atzalburuko, C) izkian.

(2) II *Machb.*, c. III, 19, 20; eta *Exodo* XXXVIII, 8.

beste zeinbat, munduan bizi biar zutenak ere atera diran, kristau on bati dagokion bizimodu garbian bizitzeko asmo beroz indarturik?

Onelakoak konta-eziñak dira, eta iritxi zuten grazia Arantzazu'ko Ama Birjiñari zor izan zioten.

Gu ere bada, orien antzera, gorde gaitzala garbi-garbi gorputzian eta animan, gero egunen batean bere arpegi edeña zeruan ikusi dezagun.

Orain, bost bider...

SEIGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

Arantzazu'ko Ama Birjiña ta arganako gure jayera.

Ama Birjiñarenganako gure jayera benetakoa izango bada, batez ere iru gauza egin bear ditugu:

Lenengo, ezagutu bera ondo, ezagutzen ez dan gauzarik ezin maitatu ditekelako. Ama Birjiña ezagutu ezkerro, jakingo degu bera dala, Eliz-Gurasoen esanez, Jaungoikoaren eskuetako egiterik andiena ta mirarien itxaso ondogabea; ikasiko degu baita Jesus-ganako bidea ere, Bernardo Santuak dionez Jesus-gana Maria-gandik joan bear deguta; onela, azkenik, arkituko degu gure bizitza ta benetako zoriona. Maria obeto ezagutzeko, begira dezagun, batez ere, bere almen edo esku-bidea eta gizonakganako bere ontasun eta erukia,

bada egiteetan ikusten da obeto bakoitza nor dan.

Onela gure Andra Maria'ren garaitasun eta eskubide aundia ezagutu ezkerro, berez sortuko zaigu biotzean, beraganako jayerak bigarren eskatzen diguna; au da, azalduko degu gure jayera ori, ta Andre bedeinkatu au jaso ta goraltzen egiñalak egingo ditugu. ¿Nola ez, Jaungoiko ta gizonen Ama eta zeru-luñen Eregiña bera dalarik? Au, ordea, ezin dezakegu Ama Birjiña berarekin, orain Berbera gure begiz ikusten eztegulako: oregatik egin bear degu bere Irudian eta bere aukerako tokian. Ementxe omen du zuten gure aurreko asaba zarak Maria'ren izen goralgafia. Ementxe dei egiten zioten biotzetik Ama oni, bai ta beraren eskutik mesederik arigafienak iritxi ere. Guk ere ayen pausoak jaraitzen baldin baditugu, ¿bear degun laguntza ez aldegu eskuratuko bertan?

Azkenik, Maria'k eskatzen diguna, batez ere bere pausoak jaraitzea ta bere antzekoak izatea da. Ama batek bere antza duten seme edo alabak maiteago izaten ditu: oregatik guk, Ama ongile onen eruki ta laguntasuna gureganatzia nai badegu, jaraitu ditzagun bere pausoak. Bestela, bidez emango liguke berak, Jesus bere semeak judu gogorai eman zien ateleka: *Eri onek mingañez goraltzen nau, baña bere biotza nigandik ufuti dago.*

Beraz, Maria'ri benetako jayera erakustea nai badegu, bere esanak zintzo egiteko asmoa arturik, iduritu dezagun Berak arantza gañetik esaten

digula, Apostoluak bezela: «Ene seme ta alaba maiteak, zuek neri atsegin eman nai badidazute, neretzat begiko izan nai badezute, jañaitu nere oñatzak, izan nere antzeko...»

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Arantzazu'ko Amak izan dituan maitaleak asko dira, eta beren maitasuna era askotara agertu izan diote; batzuek emaitz edo eskuerakutsi ugariakin, beste batzuek, eleizkizun aundi-edeñen bidez, eta beste batzuek beñiz, bidezkunde jayeratsuan, Bera ikustera etortzen zitzaizkaka.

Azkeneko oyen artean, Zegama eñiak egiten zuana oroigañia da. Arantzazu eñeta gero, ondorengo urteetan, Ama Birjiña Oñatin egon zan: oñegatik bitarte ortan lenago bezelako eñomeririk etzan egiten, beren biotzeko Ama gozoa an ikusterik etzeukatelako. Zegama'k, ordea, etzion utzi bere oitura zañari: urtero jañaitu zuan Arantzazu'ra etortzen, Ama Birjiña bertan egon balitz bezela. *Sindika*-etxeko atarian aldare bat antolatu, ta antxe egiten zuten beren eleizkizuna, eta onela, Arantzazu'ko Amari beren biotz-aguñia eginda gero, pozez beterik beren etxeetara biurtzen ziran. Oñ zein maitetsu ta zintzoki aintziñako zegamañak agertzen zioten Ama Birjiñari beren jayera bizia.

Guk ere, bada, Maria'ren laguntza ta eñukiak geregangatzia nai badegu, agertu dezayogun Berari

zaletasun aundi bat, eta batez ere bere antzekoak izaten alegin dezagun.

Orain, bost bider...

ZAZPIGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

*Arantzazu'ko Ama Birjiña bere
debotoen Laguntzailea.*

Maria'ren eskuetan utzi ditu Jaungoikoak grazi ta laguntza guziak, eta Ama maite onen bitartez gizonakgana igarotzea nai du: Eliz-Guraso santuak ala erakusten digute.

Baña, egi onen agerkai bat nai duanak, nekatu biar aundirik eztu; betor Arantzazu'ra, emen ikusiko du ori guzia argiro azaldu ta egiztaturik. Jakob Patriarka santuak amesetan ikusi zuan luñetik zerurañoko eskañera miragañi ura bera dakusgula emen dirudi, bada bere buru aña zeruko laño-artean ezkutaturik eta bere oin sendoak luñeko éaietaraño sarturik dauzkan, Aloña-mendi onetan agertu zitzaigun gure Ama; bere almen érukitsua zerutikoa dala eta noiznai luñera jetxi ta gizonen eskabide guziak aditzeko ernai eta gertu dagoala, adirazi nai baligu bezela. Alaxe da izan ere: Bera da gaiso ta erien sendatzailea, atsekabetuen poza, itxasoko ekaitz gogoñen eztañitzañetik ainbeste añantzale ta ontzigizon kaia edo portura daramaz-

kiana, eta makiña bat negar-malko samin legortzen dituan zapi biguna. Au guzia zere begiz ikusi nai badezu, kristau maitea, irakuñi ezazu Arantzazu'ko Kondaira: an ikusiko dezu argi nola Ama maite onek lagundu izan dien beti bere debotoai, ta onela Beraganako zure jayera gero ta geyago piztuko da.

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Arantzazu'ko Amak bere debotoai dien erukia jakiña da. Baña bertako Fraileai batez ere ontasun au agertu izan die: oyei, bere mirabe autu eta etxeko seme kutunai bezela, berarizko maitasuna diela dirudi. Agerbidetzat, ona emen ondorengo mirari au.

Mila bosteun berogei ta bederatzigafengo neguan, Arantzazu'ko Fraileak, iñora irten eziñik, jateko guziak aituta, ikusi ziran: ain elurte aundia izan omen zan. Baña beren Janari-zaia emen zeukaten. Gabon gaba zan: eta uste ta itxaropen osoa Ama Birjiñagan jañirik, urfengo eguneko otoitz eta abestiak egiten asi ziran, ta bereala artzai gazte ta alai baten idurian zeruko aingeru eder bat sartu zitzayen koruan, ogi ta bestelako jakiz beterik. Onela, Laguntzale miraritsu onek bere seme zintzo ayek esturasun artatik atera zituan.

Orain, bost bider...

ZORTZIGAREN EGUNERAKO

GOGARTEA

*Arantzazu'ko Ama Birjiña pekatarien
igeslekua.*

Noiztik eta nola dan Maria gizonen Ama, Ebanjelio santuak esaten digu (1).

Jesukristo gure Jaunak, mundu onetatik bestera igaro zanian, Gurutzean zinzilik zegoan lekutik zuzendu zituan bere begi erdi ilak bere Ama maiteagana, eta, Juan santua izentatuaz, esan zion: *Mulier, ecce filius tuus: Emakumea, oña or zure semea*. Ordu artatik da Maria gizon guzien eta pekatari gaixoen Ama, eta pekatariak ere añezkero Maria'ren semeak dira. Seme batek bere amagandik, ¿zer itxaron ez dezake?

Baña Maria, pekatarien Ama ez ezik, orain zeruan altsuagoa da, luñean bizi zanian baño; bada mundu onetan bizi zan bitartean bere buruagatik ere begiratu biar zuan, orain ordea ez. Orain ez dauka bere burua gorde beařík, gu baño: gure Ama da, pekatarien Ama da, ta beste ezeren ardurarik eztauka, gure animena baizik: ezerk bildur edo kezkarik ematen badio, gure animak bakařík ematen dio. Beraz, pekatari gaxoak beren gaiztakerietatik atera ta bide onera ekartzea ¿nola eztu

(1) *Joann.*, XIX.

naiko? Gizon guziak gorde ta zerura eramaten
¿nolako alegiñak ezditu egingo?

Oregatik Eliz-Amak Maria'ri izeneder eta gozo
oyek ematen diozka: Ama erukitsua, atsekabetuen
poza, pekatarien babesa. Oregatik gure Buena-
bentura santuak alaitu ta bizkortzen ditu pekata-
riak esanaz: «Pekatori erukariak, zuen uste guzia
jañi ezazute Maria'gan: berak kayara eramango
zaituzte (1)»; eta oregatik, azkenik, Bernardo
santuak esaten digu guziori: *Galdu degun gr̄azia
bil̄atu dezagun, eta Maria'ren bitartez bil̄atu de-
zagun* (2); onela bil̄atzen badegu, arkituko degun
uste osoaz.

Emendik, ordea, ikasbide okeñik ez da atera
biar. Eta zerua iristeko, gañerakoan nola nai bizi
izan añen, Ama Birjiñari deitzia bakañik asko dala
uste izatia, uste okeña, itxaropen zoroa izango li-
tzake. Onelakoai bidez esango lieke Ama Birjiñak,
Jesus bere Jainko-Semeak *b e s t e b e i n e s a n*
zuanen antzera: *Ama, Ama, deitzen duten guziak
eztira zeruan sartuko.*—Betoz pekatariak, bene-
tan, beren gaiztekeriak uzteko asmo sendoz bete-
rik, eta orduan izango da Maria, Ama erukitsua
ta pekatarien igeslekua.

Sartu bedi orain...

(1) *In Sal.* 8.

(2) *Serm. de Aquaed.*

GERTAKETA

Euskaleriko akelaŕe edo sorgin-batzaŕak, nola Arantzazu'ko Ama Birjiñaren eta Fraileen bitartez, garbitu ta goiberaturik gelditu ziran, aŕeko egun batean esanik utzi degu. Baña azti ayen artean batzuek itxu ta gogofagoak ziran, eta misiolarien egiñalakgatik etziran on-biurtzen. Ekaŕi zituzten, bada, Arantzazu'ra bertara, ta emen, Ama Birjiña ikustean, aitortu zuten uraxe bera zala, Andre eder baten irudian, beren akelaŕeetan agertu ta euskeraz itzegiten ziena, esanaz: *Ene seme-alaba lantzantxoak, lanbide zital ori utzi ezazute. Biurtu zaitezte Jaungoiko altsuagana, Kristau onak bezela: Jesukristo Egile ta Erosleagan eta aren Fede santuan siñistuaz, Eliz-Amak siñisteko agintzen duan bezela* (1).— Onela, azkenik, sorgin ayek, pekatarien babes eta iges-leku dan Arantzazu'ko Amaren aŕean, beren aztikeri ta siñiste okeŕak utzirik, biurtu ziran Fede santura.

Baña, Ama eŕukitsu onen bitartez, ¿zenbat beste onelako on-biurtze miragaŕi egin eztira? ¿Zenbat eŕukaŕi, deabruaren menpetasun gogofian zeudenak, moŕontza lotsagaŕi artatik irtenda, kristau onen askatasun gozora etofi eztira? ¿Zenbat pekatarik beren pauso okeŕak zeruko bide on-zuzenera aldatu ez dituzte?

(1) Luzur., «*Paran. cel.*», lib. II, n. 87.

Zuk, ere bada, kristau maitea, pekatuen arantza zofotzez zure anima zaurituta ikusteko zoritxañik iñoiz izango bazendu, itzuli itzatzu orduan zure begiak Maria'gana, eta Arantza gañean dagoan Ama bigun au, ezin egon izango da zutzaz erukitu gabe.

Orain, bost bider...

BEDERATZIGAÑEN EGUNERAKO

G O G A R T E A

*Arantzazu'ko Ama Birjiña euskaldunen
Zaindaria.*

Bederatziñen onetan Arantzazu'ko Amari era askotara deitu diogu. Gaur, ezkenengo egun onetan, *Euskaldunen Zaindaria* dei egin gabe ezin utzi dezakegu. ¿Nundik datorchio, ordea, izen aurgure Amari? Begira. Andre ongile au Aloña'ko arantza-gañean agertu zanetik, bere laguntza ta erukia alde guzietara zabaltzen asi zan, ta arezkerro beti laguntza bera guri egiten jañaitu du, Bederatziñen onen iragoko egunetan ikusi degunez.

Egun oyetan argiro azaldu dan bezela, Ama ongile-arduratsu au: *Lenbizi*, gure Fedearen zaintzalea da, emengo akelañe ta aztikeriak ayendu ta ondatu ezkerro euskaldunen kristau-siñismena garbi ta sendo gorde izan dualako. *Bigañen*, gure itxaropena da, laguntasun eske joan zitzaizkan

eŕukaŕiak beren esturasun eta zoritxaŕetik atera izan ditualako. *Irugaŕen*, Jaungoikoaren eta gure arteko Pakegilea da, amoŕatuta bezela, alkaŕen kontra buŕukan zebiltzan euskal-anayak pakean ipiñi zitualako, eta Jaungoikoa, gurekin asaŕe darian, adiskidetutzen dualako. *Laugaŕen*, pekatarien igeslekua da, deabruaren menpetasun gogofian zeuden eŕukaŕi asko, moŕontza lotsagaŕi artatik atera, ta kristau onen askatasun gozora ekaŕi ditualako, ta pauso galgaŕietan zebiltzan ainbeste ta ainbeste pekatari, bide on-zuzenean ipiñi ditualako. *Azkenik*, bere debotoen Laguntzalea da, gaiso eta erien senda-gaya, atsekabetuen poza eta ekaitz gogoŕen eztaŕitzaŕetik ainbeste aŕantzale ta ontzigizon kayara zuzen daramazkian itxasoko Izar argia dalako. Begira or Arantzazu'ko Ama Birjiña nor dan.

Orain bada, Aloña-gañetik onela Euskaleŕiari begira, euskaldun guziak zaindu ta laguntzen, beti ernai ta arduratsu dagon gure Amari ¿ez aldago-kio *Euskaldunen Zaindari* izena? ¿Ondo irabazia ez al du izen ori, au guzia egin digun Ama laztan oŕek?

Sartu bedi orain...

GERTAKETA

Guztiakin ongile dana, batez ere bere seme ta etxeakoakin izan oi da. Oŕegatik, Arantzazu'ko Amaren laguntza ta eŕukia geyago ta ugariago

ikusi dituztenak bertako Fraileak dirala, zer esanik eztago. Oyek ere, ordea, beren aldetik, Maria'ren semerik zintzoenak izaten, beti egin dute alegiña, bera biotz-biotzez maitatuaz eta beraganako debozioa alde guzietara zabalduaz. Berari dagokion esker ona ta jayera agertu nairik, 1731-ko uztai-laren 13'an Gazteiz'en egindako Fraile-Batzafean, Arantzazu'ko Andre Maria, Kantauri-bařutiko beren Frailetxe guzien *Ama Zaindaritzat* autu zuten. Ordutik datorkigu aldeři ontan bizi geran Frantziskotařoi Arantzazu'ko Andre Mari onen Zaindaritza.

Gero, Gipuzkoa-probintziak ere, era ořetan eta biziरो, opa zuan beretzat Maria'ren babes au. Eman zituan onetarako biar ziran pausoak..., eta orain, azkenik, 1918'ko ilbeltzaren 23'an Aita Santuak eman zuan epaiaren bidez, Gipuzkoa guziak pozez beterik deitzen dio Andre ongile oni bere *Ama Zaindaria*.

Jaři zaitez bada, kristau maitea, Zaindari onen egapean, eta eska zaiozu ařen zaindu zaitzala orain eta zure eriotz-orduan, gero zeruan bere arpegi edeřa ikusi dezazun.

Orain, bost bider...

ARANTZAZU'KO AMA BIRJIÑARI


ABESTIAK

M. Letamendi.


KANTAUREA




A- rantza- zu- ko



A- ma Bir- ji- ña Ze- ru- ko E- re gin aundi-



a Ken du pe- ka- tu da- nen a rantzak




E-man Jau- na- ren gra- zi- a; E- man Jau-




na- ren gra- zi- a.


KANTARTEA




A- gur ze- ru- en e- derta



su- na A- fo- sa zu- ri go- fi- a,



A- paindu- ri- en lo- re bi- ka- ñez Jaungoiko be- rak



jan- tzi- a, A- rantza arte- an a- rantza ga- be



A- ran- tzan go- ra jai- ki- - al Agur Don-



ze- ña gra- zi- az- ko- a Gra- zi- be- ra- ren jargo- i- al



gra- zi be- ra- ren jar- goi- a. Aratzazuko...


AZKEN AGURĀ

M. Letamendi.

KANTAUREA




A- gur, a- gur, a- gur Ma-




ri- a a- gur, a- gur guz-tiz gar-bi a. A- gur a-




gur, a- gur Ma- ri- a a- gur, a- gur guztiz garbi-




a. A- gur, a- gur guztiz gar bi- a a- gur, a-



gur, guz-tiz gar-bi a.




Glo- ri- a ta a- la- ban- tzak




A- ma Bir- ji- ña- ri A- rantza ren ga- ñe- an



a- ager- tu za- na- ri; glo- ri- a ta a- la- ban- tzak



Ama Bir-ji-ña ri A-rantza-ren ga-ñe-an



a-ger-tu za-na-ri a-rantza-ren ga-ñe-an



a-ger-tu za-na ri. Agur agur...

ARANTZAZUKO

*Arantzazuko Ama Birjiña
Zeruko Eregin aundia,
Kendu pekatu danen arantzak,
Eman Jaunaren grazia.*

1

Agur zeruen edertasuna
Afoşa zuri goña,
Apaindurien lore-bikañez
Jaungoiko berak jantzia,
Arantza artean arantza gabe
Arantzan gora jaikia!
Agur Donzela graziazkoa
Grazi beraren jargoia!

Arantzazuko...

2

Zure naia zan Aloña-peko
Arkaitz artean jartzea,
Birtute ederen lorategi bat
Usai zerukoz betea;
Ortik lenengo alda zenduan
Mejikotaren lorea
Frai Zumafaga Indiataren
Fede-erakusle trebea.

Arantzazuko...

Ortikan zaude Euskal-eriko
 Seme gaxoen begira,
 Gaur zure seme oien kontrako
 Etsaiak ugari dira;
 Zugana gatoz, Ama maitea,
 Zure mantupe argira
 Isuri zazu zeure indaia
 Euskal biotzen erdira.

Arantzazuko...

Alta Arana, S. J.

AZKEN AGURĀ

*Agur, agur, agur, Maria,
 agur, agur, guztiz garbia.*

1

Gloria ta alabantzak
 Ama Birjiñari,
 Arantzaren gañean
 Agertu zanari.

Agur...

2

Zu zaitugu guk Ama,
 Euskaldun erian
 Laguntzale sendoa
 Premia guztian.

Agur...

3

Ortxe ziñan agertu
 Mutil artzaiari
 Erukia artuta
 Euskal-erriari.

Agur...

4

Ekaitz gogof artean
 Ta lafi aldian,
 Zenbat gorde dituzu
 Itxaso erdian!

Agur...

Felipe Arrese ta Beitia.



ARKIBIDEA

Kondaira

	<u>Oñaldea</u>
Itzaúrea.	5
Saíera	7
I ¡Ama Birjiña Arantza gañean!	10
II Eleiza, Ostatua ta Frailetxea.	13
III Eleiza ta Frailetxe beñiak.—Lenengo eñeketak eta oncorengo lanak.—Andre Maria'ganeko debozioaren auferapenak	15
IV Kofradia	22
V Arantzazu'ko Ama Birjiña, bere devo-toen Laguntzalea	27
» A) Agiriko mirariak.	28
» B) Isiliko mirariak	33
VI Arantzazu'ko eñomeriak eta eñomesak	36
VII Arantzazu'ko eleizkizunak. — Barka-menak	52
VIII Arantzazu'ko Franziskotar argiak	55
» A) — Aita Fraileak	55
» B) — Laneko Fraileak.	63
» C) — Emakume jainkozaleak	64
IX Azken eñeketak	66
X Arantzazu beñia. — Arantzazu-zaletasunaren auferapenak	69
Bukaera	76
<i>Bederatziúfena</i>	
Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Bederatzi-úfena.	81

Lenengo egunerako gogartea: Bedera- tziur̄ena nola egin bear dan.	84
Bigarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña, gure Fedearen Zaintzalea.	88
Irugarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña gure itxaropena	91
Laugarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña, Jaungoikoaren eta gure arteko pakegilea	93
Bostgarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña, garbitasunaren ispilua.	96
Seigarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña ta Beraganako gure jayera	99
Zazpigarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña bere debotoen Laguntzalea	102
Zortzigarren egunerako gogartea Arantzazu'ko Ama Birjiña pekatarien igeslekua	104
Bederatzigarren egunerako gogartea: Arantzazu'ko Ama Birjiña, euskeldunen Zaindaria	107

Ama Birjiñari Abestiak

«Arantzazu'ko»	I
«Agur, agur».	II

